# ttipi-ttapa

TOKIKOM

2013ko maiatzaren 2a | XXXIII. urtea | **589**. zenbakia

**www.ttipi.net**




**Oskar ZAPATA**
Herritarren parte hartzeko ilusioa piztu behar dugu
➜ 3


**Herriko bestak**
Urdazubi / Irurita ➜ **11-16**

**LESAKA ➜ 18**
Hogei urte eta gero libre da Iñaki Fagoaga

**DONEZTEBE ➜ 24**
Aharirik onenak hilaren 10eko Udaberriko Ferian

**GOIZUETA ➜ 33**
Txinoko festak asteburuan eta eskolen topaketa 11n

**BAZTAN ➜ 35**
Argazki Rally digitala Felix Menaren omenez


## Tokian toki produzitutako janariak erosi eta kontsumitzen

**Eskualdean kontsumitzaile elkarteak indartzeak, lan aukerak ematen dizkie hurbileko ekoizleei**

ERREPORTAJEA
➜ 3-5



Urtero maiatzeko bigarren igandean milaka jende biltzen dira euskararen alde **Herri Urrats** ospatzera Senpereko aintzira bazterrean

**SENPERE** | Herri Urrats 2013

# Hogeita abar urte

EZINTASUNAREN INGURUKO VII. JARDUNALDIAK ➜ 21

## Ezintasunen bat duten haurren guraso taldea sortu da

Dituzten beharrei erantzunak emateko, hilero bigarren astelehenean bilduko dira Berako Osasun Zentroan

ELIZONDO ➜ 38

## Euskal Herria Palestina eguna ospatuko da maiatzaren 18an

Horrekin lotuta, Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondon erakusketak eta pelikulak daude programatuak.

ZOZKETAK ➜ 52




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra


BERAKO AGENDA
maiatza
4 larunbata
Euskara Bortzirietan GOGOETA PROZESUA
Guztientzat irekia · 9:00-13:00
Toki Ona Institutuan
4 larunbata
ABESBATZA: "Coral Encina de Mata" (San Felices de Buelna)
20:00 · Kultur etxean
18 larunbata
ANTZERKIA: "Zertarako Hegoak" (Metrokoadroka konpainia)
20:00 · Kultur Etxean
Sarrera: 10€ | Berrialagunak: 5€
19 igandea
XI. BERAKO MENDI ITZULIA
Izen ematea: · Aurretik: www.mendimendi.com web orrialdean
· Egunean bertan 6:00-7:50
Irteera: 7:00-8:00 · Prezioak: Federatuak:8€ | Federatu gabeak: 10€
Ibilbidea: 32 km · Desnibela: 1.750 km
8 asteazkena
Liburu elektronikoa eta tableta erabiltzen ikasteko SOLASALDIA
Gaztelaniaz · 18:00
Herri Liburutegian
10 ortzirala
LIBURU AURKEZPENA: "Plomo en los bolsillos" (Ander Izagirre)
Gaztelaniaz · 19:30
Beralandetan
25 larunbata
ANTZERKIA: "La felicidad de estar enfermo" (Ezezagunok Antzerki Elkartea)
20:00 · Kultur etxean
Sarrera: 3€
MUGAZ GAIN JAIALDIA
D.B.H. 16+17 ortzeguna ortzirala
L.H. 23+24 ortzeguna ortzirala
MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIAK
11 larunbata
KANTU JAIALDIA
Altzaten (Euraldi txarra eginez gero Eskolako Frontoian)
18:00 · Kalejira
19:30 · Jaialdiaren hasiera
15 asteazkena
Biolin Entzunaldia
18:00 · Musika Eskolan
20 astelehena
Trikitixa-Akordeoi Entzunaldia
18:00 · Musika Eskolan
21 asteartea
Haize-Instrumentuko Entzunaldia
17:30 · Musika Eskolan
22 asteazkena
Txistu Entzunaldia
18:30 · Musika Eskolan
23 ortzeguna
Gitarra Entzunaldia
17:30 · Musika Eskolan
25 larunbata
BERA KANTARI
19:00 · Illekuetako zubian
28 asteartea
Piano Entzunaldia
17:30 · Musika Eskolan
29 asteazkena
Perkusio Entzunaldia
18:00 · Musika Eskolan
Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net


Zauden tokian zaudela
sar zaitez mugikorrarekin
www.ttipi.net edizioan
ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Euskaldunen bilgune izateko helburuarekin sortu zen 90.hamarkadan Topagunea. Euskara nonahi eta noiznahi erabili nahi zuten horien bidelagun izateko asmoz. Egun, Euskal Herri osoko 20.000 bazkide biltzen dira bere baitan, ehun euskara elkarte inguru eta tokian tokiko hedabideak. Harri koxkor aunitz gainditu dituzte denbora tarte honetan eta orain ere, bidean oztopoak ageri dira. Hala ere, elkar hartuta indar egin eta aurrera jarraitzeko ilusioa dute, euskarari gune berriak ematen segitzeko.

**Oskar ZAPATA** | Euskaltzaleen Topagunean, Nafarroako arduraduna

# «Batze lanean indarra egin behar dugu, NIK baino indar gehiago baitu GUK»

E. IRAOLA

**Zer da topagunea?**
Behetik gorantz sortu den gizarte mugimendu bat da. Bere baitan euskara elkarteak biltzen ditu, tokiko hedabide guztiak bazkide dira eta erdigunean herritarrak daude, beraiek dira protagonistak. Herritarrei aterki bat ematen diegu Topagunean, formazioa, sentsibilizazioa, tailerrak... eskaini. Euskara bultzatzeko proiektuak proposatzen dizkiegu eta herritarrek aurrera egitea erabakitzen dutenean guk laguntzen diegu. Herritik sortzen den ideia edo ekimen batean bidelagunak gara gu.

**Zein testuingurutan sortu zen?**
Duela hogeita bost urte J.M. Sanchez Carrion "Txepetx" soziolinguistak sortu zuen oinarri teoriko baten bueltan sortu zen. Oinarri horrek dio tokian tokian eta Euskal Herrian euskaldunak konpaktatu, elkartu behar direla. Ideia horri segiz, herritarrak antolatzen eta artikulatzen hasi ziren. Euskaraz bizi ahal izateko beharrezko guztiak egiten. Mugimendua pixkanaka zabaltzen eta loratzen joan zen 90.hamarkadan eta Euskal Herri osora hedatu zen. Gizarte mugimendu hau koordinatu eta lideratzeko sortu zen Topagunea.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
Oskar Zapata, Euskaltzaleen Topagunean, Nafarroako arduraduna.

**Zein da zuen egitekoa?**
Gizarteko beharrei erantzuna eman eta aldi berean gizartean eragitea. Euskararen erabilerari lekuak zabaldu behar dizkiogula izan da beti gure iparra. Gune berriak eskaintzea euskarak bere lekua izan dezan arlo informalean, formalean, aisialdian, hedabideen bidez...

**Kongresua egin duzue berriki, zein ondorio atera dituzue?**
Orain arte ongi eta gaizki egindakoak aztertu eta etorkizuneko urratsak zehazteko tenorea izan da.

PLAZARA

**«Orain arte, behetik gora ikaragarrizko lana egin dugu eta orain goitik behera blaitu behar ditugu herritarrak. Egiten dugun lana gizarteratu behar dugu, urte hauetan plazara kontzeptua bidean galdu baitzagu askotan. Herritarren parte hartzea indartu, sentsibilizazio lana egin eta denon ilusioa piztu behar dugu».**

Ondorio nagusietako bat plazara gehiagotan atera behar garela izan da. Ikusezin egiten gaituzten hormak apurtu behar ditugu. Orain arte, behetik gora ikaragarrizko lana egin dugu eta orain, goitik behera blaitu behar ditugu herritarrak, mugimendua indartsuagoa izan dadin. Herritarren ilusioa piztu behar dugu eta sentsibilizazioa bultzatu.

**Zeintzuk dira oztopo nagusiak?**
Ilusio zapuztaileak deituko nituzkeenak. Garbi dago, hizkuntza bat desagertarazi nahi denean, hainbat bide erabiltzen direla. Haietako bat da herritar aktibo horiek desaktibatzea. Autoestiman eragin nahi dute, erabiltzen dituzten argudioekin jendeak bere hizkuntzari uko egitea bilatzen dute. Horretan Nafarroako Gobernua trebea da. Horretaz gain, diru laguntzen afera ere badago Nafarroan, ez baitituzte euskarazko hedabideak babesten. Guzti horren gainetik, gu kapaz izan behar gara, ilusioa ez galtzeko eta sortzen segitzeko, oso produktu duinak ditugulako.

**Zeintzuk dira etorkizuneko helburuak?**
Euskarak guneak irabazten segitzea. Hori lortzeko hitz gakoa ilusioa da. Ekimen xumeen edo indartsuen bidez egingo dugu hori. Trabak egongo diren arren, aurrera egiten asmatu behar dugu. Guretzat oso garrantzitsua da herritarrak, norbanako gisa jardun beharrean integratuta egotea euskara elkarteen baitan, Topagunean. Horrek boterea ematen dizulako eta erabakiak konpartitzeko aukera ere bai. Norbanakoak solteak badaude, isolatuta daude eta ez dute indarrik. Eskualde honetan zehazki, batze lan horretan indarra egin behar dugu. Nik esateak baino indar gehiago baitu guk esateak.

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

GIZARTEA→ ZUZENEKO KONTSUMOA

# Bitartekaririk gabe, kontsumitzaile eta ekoizleak asetzen dituen hartu-emana



## Eskualdean kontsumitzaile elkarteak indartzeak, lan aukerak ematen dizkie hurbileko ekoizleei

Lehen sektoretik bizi ahal izateko askok egin dute salmenta zuzenaren aldeko apustua. Era berean, geroz eta gehiago dira, jaten dutenaz kezkatuta, zuzenean ekoizleari erosteko hautua egiten dutenak. Ondorioz, gastuak eta irabaziak parekatzen dituzte ekoizleek. Erosleari berriz, sasoiko produktua eta hurbilekoa jartzen zaio eskura. Bien mesedetan da, ekoizle eta erosleak soka berarekin lotu eta tratua egiten baitute.

Eneritz IRAOLA

Ekoizleen eskuetatik zuzenean bezeroen eskuetara. Tartean ez dago ordainsaria garesti kobratzen duen zubi lanik. Bitartekariak desagertuta, ekoizleentzat dira lortutako etekin guztiak. Ohiko laborantzari alternatiba eskaintzeko bidea da. Baina ez hori bakarrik, kontsumo elkarteen eskariari erantzuna ere bada. Geroz eta gehiago baitira, konfidantzazko produktu baten bila ekoizleen etxeetara ate joka gerturatzen direnak.

Kontsumo eta ekoipen eredu berrien bila dabiltza eta aldaketa haizeak ere jo du eskualdean. Horren adierazle dira, berriki sortu diren kontsumo taldeak. Beren ikuspuntua biltzeko, Juanjo Elizalde Goizuetako arrautz ekologikoen ekoizlearekin, Andoni Zulaika Bidaziko kidearekin eta Felix Lagos Barraskiloak elkarteko kidearekin aritu gara solasean.

### PRODUKTUAK

Esnea, okela, barazkiak, arrautzak... zuzeneko salmenta bidez eskuratu litezkeen produktuen zerrenda geroz eta luzeagoa da gurean. Ekoizten duten hori, «prezio duin batean» saltzeko modua delako hartzen dute erabakia gehienek eta kontsumo taldeak indartzearekin batera, «merkatua ere zabalduko dela» espero du Juanjo Elizaldek.

### KALEA ETA BASERRIA LOTUZ

Kontsumo taldeak, dena den, ez dira saldu-erosi operaziora mugatzen. Kalea eta baserria lotzeko bidea ere izan litezke. Andoni Zulaikak azaldu digunez «Bidasoko kontsumitzaileak Bortzirietara erakartzea ere bada asmoa, landa eremua hemen dagoenez, handiak ttikienganagerturatzea nahiko genuke». Gainera, produktuen ebaluaketa bat egiteko aukera eskaintzen zaio erosleari eta hurbiletik ikus dezakete ekoizleek nola lan egiten duten.

### EROSLEAK

Adin guztietako bezeroak dituela aipatzen du Juanjo Elizaldek, helburua ere guztiena ez dela berdina dio «batzuk mentalitate ekologikoa dutenak dira, eta

JUANJO ELIZALDE, GOIZUETAKO MAINGENEA BASERRIKO EKOIZLEA

## «Kontsumo kulturan gertatzen ari den aldaketa baserritarrontzat aterabidea izan liteke»

Duela hiru hilabete hasi zen Maingenea baserriko Juanjo Elizalde arrautza ekologikoak saltzen. «Baserria dibertsifikatu nahian» hartu zuen erabakia. Ordura arte, ekoizpen ekologikoan betizuekin lan egiten zuen eta aspalditik zuen buruan ideia. «Instalazioak moldatu, oiloak erosi eta hilabeteren buruan hasi ziren arrautzak ekoizten».

Bezeroak lortzea izan zen hurrengo pausoa. «Kontsumitzaile elkarteetara jo eta produktua eskaintzen» dietela azaldu digu. Horretaz gain, herrian bertan ere badituzte erosleak eta etxera eramaten diete eskatutakoa. Bezero bakoitzak bere ohiturak dituela dio «batzuk astero kopuru zehatz bat bidaltzeko eskatzen digute, aurretik hitzartua duguna eta beste batzuk behar dutenean deitzen didate».


Juanjo Elizalde.

Zuzeneko salmentaren gakoa «hurbiltasuna eta konfidantza» direla aipatzen du «ez dugu soilik kalitatezko produktu bat eskaintzen, jendearen harteko harremanetan sinisten dugu. Horregatik, nahi duena bisitan etor liteke nola lan egiten dugun ikustera».

Oraingoz 420 oilok erruten dituzten arrautzak saltzen ditu. Etorkizunean, betizuen okela ere jarri nahiko luke salgai «ekoiztutako guztia zuzenean salduz».

Bertako nekazari eta abeltzainei bultzada ematen zaie salmenta zuzenaren bidez. Prezio duin bat jarrita, irabaziekin gastuak parekatu ditzakete ekoizleek.



besteak berriz, ohiko baserriko produktua bultzatu eta herriko ekonomia eta herrietako bizia mantendu nahi dutenak dira». Bi helburu horiek bat egiten dute kontsumitzaile elkarteetan «naturaren, elikadura osasuntsuaren eta bertako ekoizleen aldeko apustua» egiten baitute Felix Lagosen erranetan. Talde irekiak direla azpimarratzen dute eta edonork parte hartu dezakeela bertan. Interesa dutenek taldeko kideren batekin harremanetan jartzea nahikoa dute.

Etorkizunaren bila, ekoizle eta erosleak eskutik doaz, eredu berri bat landuz. Elikadura ekologikoaren aldeko keinua eginez, bertako ekoizleen aldeko aurrerapausoa emanez.

FELIX LAGOS, BARRASKILOA KONTSUMO TALDEKO KIDEA

## «Bertako ekoizpen ekologikoa bultzatu nahiko genuke, badago eskaria beraz, badago merkatua»

Azaroan aurkeztu zuten Barraskiloa kontsumo taldea, nahiz eta urte bete lehenago lanean hasiak zeuden. Felix Lagos, elkarteko kideak azaldu digunez, behar batzuei erantzuna emateko bildu ziren «naturarekiko errespetuz ekoiztutako produktuak eskuratu nahi ditugu, ahalik Bide batez, eskaria badagoela erakutsi nahi diete bertako ekoizleei, horrela «bailaran lurra lantzen hasi nahi dutenek, ekologikoan lan egitea planteatu dezaten, ikus dezatela badagoela eskaria, beraz badagoela merkatua».

Egun 30 bazkide inguru dira kontsumo elkartean eta pixkanaka zabaltzen doaz. Oronoz-Mugairin dute biltegia, bertan biltzen dituzte ekoizleei zuzenean erosten dizkieten produktuak. Merkatu berezi honen funtzionamendua azaldu digu Lagosek «asteazken arratsaldean hiru orduz egoten da zabalik biltegia eta larunbat goizetan bi ordu eta erdiz. Elkarteko kideak aste guztirako behar duena hartuko luke eta gero hartu duenaren zati proportzionala ordaindu. Horretaz gain, urtean kuota finko bat ordaintzen da». Produktu freskoen kasuan, berriz, aste bete lehenago eskatu behar dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oronoz-Mugairin daukate biltokia Barraskiloak elkartekoek.

Lagosen hitzetan elikagai truketik haratago doa ekoizle eta eroslearen arteko harremana «edozein momentutan joan gaitezke nola lan egiten duen ikustera ere, produktuen inguruko gure iritzia ematen diogu, hurbilekoa izatearen onurak».

ANDONI ZULAIKA, BIDAZI TRANSFORMAZIO GUNEKO KIDEA

## «Ekoizleen izen eta abizenak ezagutzen ditugu, hurbilekoak dira, horrek kalitatezko produktu bat kontsumitzea ziurtatzen du»

**Zer da Bidazi?**

Irabazi asmorik gabeko elkartea gara. Helburu nagusia, tratamendu kimikorik gabeko produktueko kontzientzia, ekoizpena eta erabilera sustatzea da. Kontsumitzailea eta ekoizlearen arteko harremanak ere kontuan hartuz eginen litzateke pausoa. Kontsumo taldea izateaz gain, gune dinamikoa izatea ere nahi dugu. Ekologiarekin zerikusia duten gai guztiak lantzeko espazioa.

**Nola sortu zen proiektua?**

Duela zortzi bat urte 18 bat familia elkartu ginen janari ekologikoak prezio duin bat ordainduz, bitartekaririk gabe erosteko asmotan. Orain ekimena zabaltzeko garaia dela uste dugu. Gure osasunaz arduratzen gara eta guk erabaki nahi dugu zer jaten dugun. Bertako ekoizleen produktuak iruditzen zaizkigu horretarako aukera hoberena. Ekoizleen izen eta abizenak ezagutzen ditugu, hurbilekoak dira, horrek kalitatezko produktu bat kontsumitzea ziurtatzen du.



Arantzan egindako aurkezpenean 25 bat lagun bildu ziren.

**Etorkizunean zer?**

Orain proiektua hainbat herritan aurkezten ari gara. Behin taldea finkatzen dugunean, elkarrekin hartuko ditugu etorkizuneko erabakiak. Oinarria argi da, guk kalitatezko produktu ekologikoak kontsumitzea eta, bide batez, ekoizleek bere produktuengatik irabazi duinak lortzea. Harreman honekin, bi alderdiak irteten gara garaile.

Nafarroako Gobernua

cederna garalur

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen
LQP 2007-2013 (LEADERako 4. ardatza) programako funtsak, Europar Batasunaren finantziazioarekin (% 55), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez



**Nire txanda**

Zuriñe ZUBILLAGA

# Biluztasuna

Biluztasuna, gorputz biluzia. Haragia eta azala erakustea ote da biluztasuna; edo, aitzitik, sekreturik ezkutuenaren azaleratzea? Errebelazioa, Pandora kaxaren irekiera akaso. Lotsaren iturri, zikinkeriaren arrastoa, deskaru gordina, delinkuentziaren hastapena. Baina bi titi ez al dira bi titi? Eta ipurdi bat ez al da izango ipurdi bat beti, han edo hemen, Euskal Herrian edo Afrikan? Badirudi ezkutuko haragi bakoitzari erantsi diogula etiketa bana. Guk bihurtu dugula morbo ikuskizun Hendaiako hondartzan paseatzen den gizon biluzia. Argitasuna gorde dugu ilunpean, natura gorde dugu, bizia estalpean mantendu. Agian, biluztasuna biluztasun besterik ez da, sinple bezain erraz. Eta hori bezain erraza dugu biluztasunak eta jantziak elkarren ondoan paseatzea. Beharbada, egunen batean, ikuspegia zorroztu eta pentsamoldeak erantziko ditugu. Agian edo akaso.

> «Badirudi guk bihurtu dugula morbo ikuskizun Hendaiako hondartzan paseatzen den gizon biluzia»

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

# Milioi bat euroko aurreztea

Haundizki iragarri du Nafarroako Gobernuak milioi bat euro baino gehiago aurreztuko duela Foruzaingoaren aparteko orduen eta ofiziala ez den arroparen erosketen araudi berriarekin. Nahitaezko gastuak, dudarik ez. Zenbat ez ote du alferrik gastatzen bi arlo hauetan? Zer ez lukete eginen ikastetxeetan, osasun zentroetan edo euskarazko komunikabideetan diru horrekin?

## Nabarmentzekoak



**Itsaso FAGOAGA**

Lesakarra berriz ere garaile

Skeet Olinpikoan, Espainiako Erregearen Kopa eta Nafarroako txapelketa irabazi ditu apirilean (Antonio Javier aita azpitxapeldun izan zen). Orain, Espainiako txapelketan ariko da.



**Maider ATXA AGERRE**

Almandozko proiektua Perun

Injenieritza karrera akitzeko proiektua egin du Peruko Machu Picchu inguruan. Alcomayo herrira ura eramateko egitasmoa aurkeztu zuen eta dagoeneko etxe guzietan badute ura.



**Didier ZAGO**

Bosgarrenez garaile Beran

Bosgarren urtez segidan irabazi du Berako Mendi Maratoi Erdia Biarnoko korrikalariak. Beroa zela-eta, ez zuen bere marka hobetzerik izan, baina jaun eta jabe izan zen lasterketan.

**Atzera begira ➜ 2003.05.08** / TTIPI-TTAPA 349 zbk.



## Juan Carlos Mortalena arraioztarraren seilu bilduma

«Munduko 200 herrialdetako 15.000 seilu baino gehiago ditut» erran zigun duela hamar urte Juan Carlos Mortalena arraioztarrak. Hogei urte lehenago hasia zen zigiluak biltzen eta ez zela afizio garestia aipatu zigun: «Gainera, aunitz ikasten dut seiluei esker». Arraioztarraren erranetan, «Asia eta Afrikako seiluak dira politenak baina badut bat, Gernika, bereziki gustatzen zaidana». Denek ez zuten Juan Carlosen afizioa konprenitzen, «amak eta koinatak erotu naizela erraten didate, ez dute ulertzen zergatik hartzen dudan holako lana seiluak biltzen», onartu zigun bildumagileak.

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2013ko harpidetza sariak**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Hego Euskal Herria | 40€ | Europa | 59,50€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 34€ |
| Ipar Euskal Herria | 59,50€ | Amerika eta Australia | 124€ | Leitza | 17€ |

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

# Eltzetzuak eta eltxeitsuak

Mikel TABERNA «Kapi»

Eltzetzu erraten diegu Bidasoaldeko zenbait herritan guardia zibilei. Baina hitz hori karabineroentzat omen zen lehenago. Haiek omen ziren egiazko eltzetzuak.
Kontatzen dute karabinero bakoitzak metalezko eltze koxkor bat izaten zuela, lanera joaten zelarik haren barrenean bere eguneko anoa eramateko. Hortik heldu omen izena, "eltze"tik alegia. Niri kosta egiten zait sinestea, baina arrazoi hoberik ez dut aditu hitz hori nola sortu den esplikatzeko. Nolanahi ere, oraindik ere hor segitzen du, jendeak normal-normal erabiltzen du.
Ordea, nor ziren karabineroak? Horren gainean kontu interesgarriak idatzi ditu aspaldi beratartu zitzaigun Aurelio Gutierrezek. Interneten ikusten ahal da artikulua, Bidasoa ikerketa zentroak duen txokoan. Bertan paratzen du Fernando VII.a errege zelarik hasi zirela karabineroak Espainian, 1829an. Zer misio zuten? "Kontrabandoaren kontra aritzea; hura prebenitzea edo atakatzea eta pertsegitzea". Horregatik, gure paraje hauetan muga zaintzen aritzen ziren.
Espainiako gerra zibilean haietako gehienak Errepublikaren alde aritu baitziren, Francok gorputz militar hori desegiteko agindua eman zuen 1940an. Handik aitzinera, guardia zibilek hartuko zituzten euren gain karabineroen egitekoak; harrezkeroztik "eltzetzu" deitura ere guardia zibilei eman die hemengo jendeak.

> «Eltxeitsua: Halaxe erraten genion haur denboran gure xoxen gordelekua zenari. Buztinezkoa izaten zen eta xirritu bat bertzerik ez zuen izaten barrenera pezetak sartzeko. Hartan biltzeko erraten ziguten gurasoek, gordetzeko gerokoz»

Baina hitz horrek igualtsua den bertze bat ekartzen dit niri burutara: "eltxeitsua". Halaxe erraten genion haur denboran gure xoxen gordelekua zenari. Buztinezkoa izaten zen eta xirritu bat bertzerik ez zuen izaten barrenera pezetak sartzeko. Hartan biltzeko erraten ziguten gurasoek, gordetzeko gerokoz. Eta gu hantxe, mailua eskuan beti prest, hura puskatzeko baimena noiz emanen ote ziguten, gure urrearekin gutiziaren bat erostera joateko.
Haien partez, plastikozkoak etorri ziren gero, ireki eta ixteko giltza zutenak. Erabiltzen ote dute horientzat gaur egungo haurrek "eltxeitsu" hitza? Ez dakit, baina kasu ematen ahal dute, zeren espainolez bezala erraten badiote ("hucha"), ez baitute sekula beteko. Ez duzu hala uste?

# Epaitegiak, komedia ilunaren pasarela

Joseba URKIOLA

Gozoki ariko dira zine munduko gidoilariak eta idazleak eskuak igurtzen. Azkenaldiontako albisteak ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko. Asmakuntzarik onenean ere, sortzaile gutxik edukiko lukete horrelako gertakizun sorta. Gurean gero eta langile gehiago etxean egoteak ezin izugarria sortzen du. Sua berriz, boterea eskuetan dutenen eta zutenen istorio eta misterioek.
Nafarroako Aurrezki Kutxa nortasunik gabe ezerezean amildua da. Izena galdua eta izana eraldatua. Marrazoek bazka gozotik nahikoa gastatu dutenean; aginak kamuts dituztela aitortu dute. Prest omen daude hartutakoa itzultzeko. Baina nola bueltatu daiteke murtxikatu, zukatu eta birrindutako zerbait?
Errege familiak ere erredura askotxo sortu ditu inguruetan. Tronua dantzan omen dago, Errepublika berriz ate joka. Juan Carlosen alaba epaitegietan azaldu berri da, arin ibiltzen den senar kirolari ohia Qatarrera bidean da. Egina egin eta esanak esan, ikusiko dituen harresiak ez dira burnizkoak eta beltzak izango. Koroa buruan edukitzeak nonbait indar handia du. Odol gorria urdintzeaz gain, legeak ere eraldatu egiten ditu.

> «Prest omen daude hartutakoa itzultzeko. Baina nola bueltatu daiteke murtxikatu, zukatu eta birrindutako zerbait?»

Bi adibide hauek, eguneroko zoroaren lagin besterik ez dira. Epaitegiak ospearen, famaren eta distira antzuaren pasarela bihurtu dira. Donostiako Zinemaldian Maria Cristina hotelean bezala egoten da jendea argazki kamara digitalak edota mugikor erraldoiak lagun. Eguneroko arazo eta kezkak xamurtzeko aisi gune bihurtu dira legearen tenpluak. Batzuentzat zirkoa ere bada. Okerrena pailazotzat haietatik kanpo daudenak hartzen dituztela. Aitorpenak egitera joaten diren boteredunak, trapezistak dira. Iruzurra egituratzen artistak eta legeari ez duen zirrikitua aurkitzen bikainak.
Egunero harri eta zur geratuagatik, herritarrengan irri gutxi sortzen duen komedia honek ez du etenik. Protagonistak asko dira, trama berriz denetan berdina. Izerdi hotzik isuri gabe, gauzei duten balioa kenduta diruduna aberatsago egitea. The End erraldoi bat irakurtzea litzateke kaltetuen helburua, baina badirudi oraindik asko geratzen zaiola saga honi bere amaierara iristeko. Ospearen pasarelak distira bai, konpobideak gutxi.
TO BE CONTINUED

**Irakurleak mintzo**

## Hizkuntza politikarako laguntzen murrizketa dela eta

Alberto BARANDIARAN (Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkartea)

Hekimen elkarteak euskara hutsean ari diren berrogeita hamar hedabide baino gehiago biltzen ditu. Diru laguntzen politikari eragitea da bere asmo lehenetariko bat, eta azken hilabete honetan hainbat bilera egin ditu eragile ugarirekin, besteak beste Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoetako ordezkariekin, euskal hedabideek dituzten proiektuak eta hurrengo urteetarako asmoak azaltzeko. Bilera horietan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen gaia izan da nagusi.
Aurrekontuen proiektuaren arabera, euskal hedabideentzat 4.875.000 euro aurreikusi ditu EAJko gobernuak, iazko kopuru bera.

Euskal hedabideek diru laguntza politika eraginkorragoa eta zabalagoa eskatu diote administrazioari behin baino gehiagotan, euskal hiztun komunitateak behar dituen eta eskatzen dituen hedabideak sendotzeko ezinbestekoa delakoan. Murrizketa etengabekoen erdian iazko diru kopuruari eustea, sektorearen etorkizuna bermatzeko nahikoa ez dela jakin arren, elkarteak egindako ahalegina onartzea dela uste du Hekimenek. Euskal hedabideen garrantzia eta estrategikotasuna aitortzea, alegia. Hizkuntza Politikarako sailburuordetzari hain zuzen ere horixe eskatu zion elkarteak, sektorearen egoera ulertzea, eta hurrengo urteetan elkarlanean hasteko oinarriak jartzen laguntzea. Hekimenek uste du aurrekontuen proiektuaren bidez administrazioak hedabideetan jarri duela marra gorria, eta ondo baloratu du jarrera hori.

Hekimenek garbi du, hala ere, aurrekontu hauek ez direla nahikoak sektoreak aurrera eraman behar dituen erronkei heltzeko. Azken urteetan %15 jaitsi da euskal hedabideentzako diru saila, eta publizitatean ere beherakada ikaragarrita dago aurten. Euskal hedabideek behin eta berriro esan dute inbertsioak behar direla aurrera egiteko, aldaketa sakonen garaia baita, eta Administrazioak sektorearen garapena lagundu behar duela, diru kopuruak handituta, eta politika iraunkorragoak aplikatuta. Hori dela eta, bere prestutasuna azaldu nahi du hain garrantzitsuak izango diren hurrengo urteetan politika eraginkorrak elkarlanean sustatzeko.

Elkartea, halaber, kezkatuta agertu da euskalgintzarako diru sailek eta, orokorrean, hizkuntz normalizazioa helburu duten egitasmoek aurten izango duten diru laguntzen jaitsieraren aurrean. Hekimenek, euskalgintzako parte den heinean, kezkaz ikusten ditu jaitsiera horrek ekar ditzakeen ondorioak, eta bat egiten du euskal eragileen artean jaitsiera horrek eragin duen ezinegonarekin.

## Adiorik ez, “Don Basilio”

Miren HERNANDORENA

Apiril honetan, azken 61 urtetan Sunbillako apaiza izan den Basilio Sarobe jauna (Don Basilio), merezitako atsedena hartzera joanen da Iruña aldera. Horren inguruan lerro batzuk idaztea gogotu zait, denborarekin ez bainuke nahi ez errandako solas horietaz damutu.

Don Basiliok, sunbildarrontzat, gauza aunitz suposatu ditu. Egindako lanen artean batzuk aipatzekotan, honakoak: solfeo, txistu eta katekesi irakasle, euskal pilota eta dantzen bultzatzaile, abesbatzaren sortzaile eta zuzendari, herriko toponimia eta ondarearen biltzaile… Beldurrik gabe erran genezake, Sunbillan gaur egun euskal kultura eta euskara bera bizirik baldin badaude berari esker dela hein haundi batean.

Beti eskertua egonen natzaizu Don Basilio, ttikitatik musika ulertzeko eta maitatzeko tresnak erakutsi zenizkidalako. Nere ikasketetan hagitz baliagarri izan zaizkit elizan jende aurrean egindako saio ezberdinak.

Gorestekoak iruditu zaizkit beti, zure determinazio eta perfekzionismoak. Gorestekoak baita, zure bizitzako garai bakoitzean egoera guztiei aurre egiteko erakutsi dituzun indarra eta ausardia. Gorestekoak dudarik gabe, sortzez zurea ez zen herri batengatik egin dituzun lan eta esfortzu guztiak.

Egun, kontziente naiz, zenbait momentutan elizaren inguruko kuestio batzuekin trantze zailetan jarri zintudala. Sentzazioa daukat, zuk ere zure baitan, gure gisara nahiko zalantza eta tira bira zenitula.

Uste osoa daukat, Eliza Katolikoaren hierarkian parte hartzen duten gehienak zu bezalakoak izango balira, seguraski gaur egun erakunde horrek jarraitzaile gehiago izanen lituzkeela.

Alde ederra legoke, orain bizi dugun bolada txar honetan, zure birtute diren ausardia eta lan egiteko gogoak ere erabateko krisialdian ez balira.

Akitzeko eta sermoia sobera luzatu gabe, erran, zuk apaiz eta batez ere gizon bezala herri honi eman diozun guztiarengatik zorretan egonen gatzaizkizula. Faborez etzazula hainbertze urtez hartu zaituen herri honekin kontaktua galdu eta zuk erabiltzen dakizkizun teknologia berrietaz baliatuz ez galdu inoiz erakutsi eta ikasteko grina hori.

Bertzerik gabe, nere familia guztiaren izenean, adiorik ez, eskerrik asko bihotzez eta laister arte Don Basilio.

## Mila esker, Etxalar!

Mikel ALBISU (Bidasoako Kontrabandistak enpresaren izenean)

Joan den martxoaren 23an Kontrabandisten 1. Mendi Itzulia izan zen Etxalarren (ikusi 588 zenbakia). Bidasoako Kontrabandistak antolatua, diru irabazteko asmorik gabeko egitasmo honek gure eskualdean kontrabandoan aritutakoen testigantza zuzena jaso eta ibilaldi gidatu baten bidez ezagutzera ematea da. Oso balorazio positiboa egiten dugu: gau zoragarria lagun, ia 80 lagunok Xantiren hainbat pasadizo ezagutu eta ibilbide ederraz gozatu genuen. Eta irri batzu ere, eltzetzuez mozorrotatutako horiekin!! Eskerrik beroenak:

- Etxalarko Udalari, herriko frontoia eta mahaiak utzi zituelako.
- Etxalarko herritarrei, egitasmoa burutzeko eman zuten laguntzarengatik.
- Bertiz Partzuergo Turistikoari, egindako promozioa eta gau horretan bertan egindako lanarengatik.
- Parte hartu zenuten guztiei, zuen gogoarengatik.

Hurrengo edizioa prestatzen hasiak gara, 2013ko martxo aldean, ibilbidearen bertze puntu batetan, kontrabandoan aritutako bertze baten testigantza jaso eta ezagutzera emateko prest.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Prentsatik bildutakoak



«Ur arazo handiak daude hemen; herrietan ez dago azpiegitura egokirik. Ura izateko eskubidea guztiona dela aldarrikatzen dugu. Mobilizazio handiak egin dira hori lortzeko, jendea kontzientziatzen hasi da». «Landa guneetako arazoak dira ura eta pobrezia; hirietakoa, berriz, indarkeriarena. Narkotrafikoa, hilketak, bahiketak… Eguneroko kontua da; dena den *marek* duela urtebete su-etena eman zuten eta egoera baretu egin da». «Zergatik sartzen dira gazteak *maretan*? Askok ez dute beste aukerarik, eta irtenbide errazena da haientzat. Bazterkeria jasan dute askok». «Hemen ezin gara ibili han bezala, bereziki gauean. Umeek beti gure begiradapean egon behar dute, ezin ditugu bakarrik utzi. Arreta handia eskatzen du horrek».

**Amaia LARRALDE**
Lesakarra El Salvadorren
NAF. HITZA 2013.04.19

## 11 galdera labur

**Eskua, erremontea edo pala?**
Nerez erremontea baina beste hiru juntatuz gero edozertan.

**Saldisa edo Goizuta?**
Saldisa diat nerea, baina Goizuetara ere azaltzen nauk.

**Nongo pestatara joaten haiz gusturena?**
Aurreko bi herriez aparte, Leitzara eta Doneztebera.

**Baina kirola edo juerga?**
Ahal den bitartean, biek. Gazteak gaituk, eta juerga egin beharko diagu, baina kirola ez duk utzi behar.

**Herrian bertsotan aditu izan zaik. Gustuko bertsolari bat?**
Lazkao Txiki handia. Aurten 20 urte hil zela.

**Zer eginen hukek nahiko sosa izanez gero?**
Banatu.

**Baserriko lanetan aritzen haiz: artzaintza edo baratzea?**
Oraindik ardietan hobe. Baratzean aritzeko pazientzia falta diat nik.

**Eta mekaniko lanetan?**
Hori ikasi nian, eta gustura aritzen nauk denbora dutenean.

**Zer moduz ikusten duk gaur egungo lan martxa?**
Gauza beltza zagok, eta berriz ere etxean lagundu beharko aurrera atetzekotan.

**Pentsatu al duk kanpora joatea?**
Ez, sobra maite diat herria.

**Atera behar bahuke, nora?**
Alemaniara.



**Iñigo ZUBELDIA ➔ Saldiasko gaztea**



















PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# GIZARTEA

**POLITIKA** ➜ ALDAKETA EURIA PROZESUA MARTXAN DU

## Baztan-Bidasoaldea iratzartzeko ordua dela uste du Bilduk



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Xabi Torres, Deñe Abuin, Ekaitz Landa, Severiano Txoperena eta Andres Etxenike, EHBilduk Malerrekako Mankomunitatean egindako agerraldian.

### Sare produktiboaren eta baliabide publikoen kudeaketa aldatu behar dela dio

**TTIPI-TTAPA**

Eskualdean ezagutu dugun ekonomia eta jendarte eredua agortu eta gainbehera etorri dela nabarmena denez, «ordua da erreakzionatzeko, sare produktiboa eta baliabide publikoen kudeaketa aldatzeko» adierazi du Baztan-Bidasoaldeko EH Bilduk, apirilaren 16an egindako agerraldian.

Eskualdeko egoerari dagokienez, iniziatiba hartu beharra dagoela uste du EH Bilduk, «gure buruaren jabe egin eta heldutasunera pasatu, ez ezer, ez inor ez delako gu salbatzera etorriko. Izan ere, gauza jakina da azken 30 urtetan gure eskualdea deliberatuki baztertua eta zokoratua izan dela Nafarroa ofizialak gauzatu dituen egitasmo eta inbertsio garrantzitsu guzietatik». Egoera aldatzeko garaia heldu dela eta hontan jardun politikoak zererran eta ardura determinantea duela uste dute, «non sakontzeko eremu bat dagoen, gure eskualdea (Baztan-Bidasoa) eta bide bat, bertako baliabideen plazaratzea».

Nafarroa osoan eskualdeka egiten ari den *Aldaketa Euria* prozesua martxan jarri du Bilduk. Bertizarana, Malerreka, Bortziriak eta Baztanen ere ari dira lanean, eta eskualdea eta bertako baliabideen plazaratzea ardatz hartuta eraldaketa politikak abiatzeko zenbait puntu aurkeztu ditu, hala nola, eskualdeko instituzioak ikuspuntu estrategiko batetik eratu, Nafarroako Gobernuak eskualdeari egiten dion asignazioa goratu, ehun produktibo eta komertziala berregiteko pausuak eman, Lanbide Heziketako eskaintza formatiboa berraztertu, Nafarroako Gobernuaren borondate aktiboa, eskualdeko aukera industrialak aztertu eta garatzeko, Hezkuntza sistemaren doikuntza, Osasun zerbitzuen Iruñearekiko dependentzia murriztu eta eskaintza osatu, etxebizitza politika arrazionala garatu edo euskara politikak eraldatu, bertzeak bertze.

Datozen asteetan, eragile eta pertsona desberdinekin kontaktatuko du EH Bilduk eremu hauetan sakontzeko. «Zugana joko dugu, eskualdeko herritar gisa dituzun iritzi eta jakintzen bila, egoera okerragoei aintzinatzeko ordua baita».




# IRURITAko BESTAK 2013

# EGITARAUA

## Maiatzak 8 asteazkena BEZPERA

12:00 Txupinazioa. Herri-buelta BAZTANGO GAITEROekin. 16:30 Haurrendako Herri Kirolak. 18:00 Merendue. 18:30-20:30 Dantzaldia akordeoilariarekin. 20:00 Ezkil-Jotzea. 21:00 Baztanzopak. 01:00-04:00 Dantzaldia karpan akordeoilariarekin.

## Maiatzak 9 ortzegune SALBATORE EGUNE

10:00 Dianak. 11:00 Meza Nagusia. 12:00 Herriko dantzarien erakustaldia. 13:00 Luntx Herrikoia. 17:30 Bertsopoteoa SUSTRAI COLINA eta JULIO SOTOREKIN. 19:30 Trinketeko VI. Esku Pilota Txapelketaren finala. 20:00 Gaiteroak. 00:30-04:00 Dantzaldia Trikitilariekin.

## Maiatzak 10 ortzileria HAUR ETA JUBILATUEN EGUNE

10:00 Dianak. 11:00 Haurren jokoak Erreboteko plazan. 13:30 Haurrendako bazkaria karpan. 14:00 Jubilatuen bazkarie Olari Jatetxean eta Gazteen bazkarie Baigorrin. 15:00 Haurrendako jokoak. 10:00 Txokolatada. 20:00 Dantzaldia AIERRIK taldearekin. 21:30 Gaiteroak. 23:00 TIRRITERI DJak karpan. 01:00-04:30 Dantzaldia AIERRIK taldearekin.

## Maiatzak 11 larunbata

10:00 Dianak txarangarekin. 11:00 Haurrentzako jokuek. 12:00 Herri Kirolak. 14:00 Zikirojatea txarangarekin. 20:00 Dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. 21:30 Gaiteroak. 01:00-05:00 Gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin.

## Maiatzak 12 igandea

10:30 VI. Haur Krosa. 11:00 Meza. 11:30 V. Herri Lasterketa. 12:30 Sari banaketa eta luntxa partehartzaileendako. 18:00 Dantza erakustaldia. 19:30-21:00 Rantxerak. Ondotik lagun arteko afariak eta besten akabaila.































# URDAZUBIko BESTAK 2013

## Maiatzak 8 asteazkena

20:00 TXUPINAZOA. 21:30 Plazan AFARIA Modesto akordeolariarekin

## Maiatzak 9 ortzegune

11:00 Meza. 12:00 APERITIFA Txistulari eta dantzariekin. 16:00 Haurren jokoak. 18:00 Txokolatada. 21:30 PAELLA jatea . Ondotik KIKI BORDATXOREKIN dantzaldia.



## Maiatzak 10 ortzirala

12:00 GORRITI bere animaliekin. 14:00 Ugarana elkarteko bazkaria La Koxkan. 16:00 Haurren jokoak. 16:30 BERTSO-TRIKI POTEOA herriko karriketan barna Egaña eta Zubeldiarekin. 20:00 SAGARDOTEGI mugikorra . 23:00 Dantzaldia LUCIANO akordeolariarekin.

## Maiatzak 11 larunbata

10:00 KONTRABANDISTEN LASTERKETA. 14:30 zikiroa txarangak alaiturik eta ondotik kalejira. 16:00 Haurren jokoak. 21:00 Indar berritzeko zingar jatea eta giro onari eusteko *Jauntxo el Txarro* mariatxiekin dantzaldia. 00:00 Dantzaldia GABEZIN.











Maiatzak 12 igandea

16:00 Ginkana. 17:00 KENPO-KAI erakustaldia. 18:00 Nesken fronteniseko finala. 19:00 Mutikoen fronteniseko finala. 20:00 Boletoen zozketa: Zorte on!. 20:15 PINTXOAK denentzat LUCIANO akordeolariarekin.











































**Montxo BLANCO** | Montxo Ostatu-jatetxekoa

# «300 lagunendako paella eta 150 lagunendako txuleta prestatzen dugu bestetan»



Bestarik handienak mahaiaren inguruan egiten omen dira. Ez hori bakarrik, baina Urdazubiko bestek horretatik ere badute: zikiro jatea, paellada, txuleta jatea… Hori horrela izan dadin errudunetako bat Montxo Blanco da, Montxo ostatuko nagusia. Anzan bordan berean sortua duela 53 urte, familiak betidanik izan duen ostatuan ari da lanean eta hainbertze urte daramazki besten antolakuntzan laguntzen eta azkeneko urteetan, ostatu-jatetxearen bitartez, paellada eta txuleta-jatea bideratzen ditu: ***«Txuleta jatearekin duela hiru urte hasi ginen eta paelladak izanen ditu hamar bat urte. Gazteek sukaldari bat paratzen dute eta nik badut Iruñean eta kolegioetan hainbertze jenderendako janaria ematen esperientzia, badakizu zenbat arroza behar den, zenbat haragi… beraz aitzinera!»***. Paella 300 bat lagunendako prestatzen dute eta txuleta, berriz, 150 lagunendako. Berak prestatzen ez badu ere, zikiroan bertze 300 lagun asetzen dituzte. ***«Bezperan izaten da baratxuri zopa, txuritabeltz eta txuleta*** –dio Montxo Blancok– ***Zopa eta txuritabeltx etxean egiten ditut eta txuleta plazan. Paellarekin batera, entsalada ere ematen dugu plazara»***. Paella nahiz txuleta gustora hartzen dituela aipatu digu Montxok eta besta gustura egiteko garrantzitsuak direla: ***«Tripa ongi betea duzunean animatuagoa zaude, mahaiaren bueltan beti besta errexago egiten da»***. Jatetxeko ohiko platerekin batera taloak ere eskainiko dituzte Montxon ortziral arratsaldean eta ostatua 24 orduz irekia kontzeko asmoa dute asteburuan.






Bizi osoa ostatuari lotua darama urdazubiarrak eta azken urteetan krisiaren eragina somatu dela aipatu digu. ***«Bai, somatzen da eta beldur naiz aurtengo bestetan ez ote dugun gehiago somatuko»***.

Ostatutik kanpo, Urdazubiko bestetan, ***«dena gustatzen zait, ahal den neurrian laguntzen dut. Gehien gehien zikirojatea gustatzen zait, bertsolariak…»***. Posible izanez gero zer ekartzea gustatuko litzaiokeen galdetuta zera aipatu digu Montxok: ***«Nik gustura ekarriko nuke espektakuloren bat ostatura, baina ezin da, pena litzateke jende guzia ostatuan sartua eta herrian inor ez ibiltzea bestetan, ez ditut gazteen bestak izorratu nahi»***.



Bestak antolatu zituen taldea 1979an. Goitian, Juan Luis Sarratea, Juan Ramon Otegi eta Antonio Sarratea. Beheitian, Montxo Blanco bera, gaur egun alkate den Santi Villares eta Patxi Bengotxea.

Izan ere Urdazubiko gazteria jatorra dela iruditzen zaio Montxo Blancori: ***«Arras ongi ikusten ditut gazteak, animatuak eta ongi, beti lanerako prest, langileak dira»***. Bestetan, Urdazubitik ez ezik, Iparraldetik ere aunitz etortzen omen da gazte jendea, ***«asteazkena eta ortzeguna besta egunak dira Frantzian, badute zubi aurten eta Iparraldeko jendea espero dugu, horiek igual sosa erraxago mugitzen dute, ikusi behar! Baina bertze aldetik igandea Herri Urrats ere bada, eta horrek jendea kenduko digu»***.



















JATETXEA - ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA • TABAKO-DENDA
MAIATZAREN 10EAN,
ORTZIRALEAN
TALOAK
17:00etatik aurrera
URDAZUBIKO
BESTATAN
24 ORDUZ
IREKIA
ASTEAZKENETIK
IGANDERA
GAUEZ
BESTA
GIROA
ANZAN BORDA
URDAZUBI NAFARROA
(Dantxarineatik 2km.tara)
T. 948 599 039
montxoblanco@gmail.com
PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK · PINTXOAK
MENUAK ENKARGUZ · ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN
Ongi pasa bestak!

**KIROLA** ➜ AGERRA MENDI TALDEAK ANTOLATUA

# Berako XI. Mendi Itzulia maiatzaren 19an eginen da

32 kilometroko luzera eta 1.750 metroko desnibela duen ibilbidea da

**TTIPI-TTAPA**

Agerra Mendi taldeak hamekagarren aldiz antolatutako Mendi Itzulia apirilaren 19an eginen da. Aurtengoan 32 kilometroko luzera eta 1.750 metroko desnibela duen ibilbidea prestatu dute. Elkartetik bertatik abiatu eta Zigorriaga, Manttale, Ibardin, Erentzun, Zizkuitz, Larun, Labiaga eta Larretagainean barna pasatu ondotik, berriz ere elkartean izanen dute helmuga mendizaleek. Labiaga igo gabe bertze ibilbide bat izanen dute aukeran.

Irteera goizeko 7:00etatik 8:00etara eginen da. Izen ematea ere egunean berean egin daiteke, 6:00etatik 7:50era edo aitzinetik, www.mendizmendi.com webgunean. Izen ematerakoan federatuek 8 euro ordaindu beharko dute eta federatu gabeek 10 euro.

## Plastikozko tapoiak

Labiaga ikastola plastikozko tapoiak biltzen ari da. Lortzen den dirua, ezintasunen bat duten seme-alabak dituzten ikastolako familiei laguntzeko izanen da. Hori dela eta, lagundu nahi izanez gero, hasi betetzen Altzateko eta Eztegarako ikastoletan paratu dituzten ontziak.

## Kantabriako Abesbatza

Joan den larunbatean Berako Abesbatzak San Felices de Buelnara egindako bisita bueltatuz larunbat honetan, maiatzak 4, Kantabriako herri horretako La Encina de Mata abesbatzak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean, 20:00etatik aitzinera. Bertze aldetik, Musika Eskolak kantu jaialdia ere antolatu du maiatzaren 11n.

**Ba al zenekien…?**

**Herri Liburutegiak ebook bat erosi duela eta laister tablet bat ere eskuratuko duela. Euskarri horiek erabiliko dituzte, adibidez, ikastaroak emateko. Lehenbizikoa maiatzaren 8an eskainiko da, 18:00etan.**





UTZITAKO ARGAZKIAK

## Giro ederrean joan zen San Jose Zahar Etxeko Kultur Astea

San Jose Zahar Etxeko bizilagunek Kultur Astea ospatu zuten apirilaren 15etik 21era eta egunero egunero ekitaldiren bat izan zuten. Asteazken arratsaldean, Ilusiona antzerki taldeak "El abuelo Fortunato y Carlota" antzezlana eskaini zuen, goitiko argazkian ageri denez. Ortziralean bertso saioa aditzeko aukera izan zuten. Iban Garro, Egoitz Gorosterrazu, Iban Garro eta Julen Zelaieta aritu ziren kantari, Ainhoa Larretxea gai-jartzaile eta akordeoiarekin laguntzaile izan zutela. Horietaz gain, Zahar Etxean bizi den Dámaso Rosas-ek garai batean egiten zituen makilak eta botak erakutsi zituen, Maritxu Martikorenak bere ehoziri-lanak, Baraonak bere tailak eta Totono Errandoneak ferratzeko iltzeekin egiten dituen irudiak eta nekazaritza tresnen erreprodukzioak. Musikariak (Jose Ignacio Roberto, Irazoki bikote alai eta Maitreya taldeak), taloak Maria Mitxelenarekin eta kirolean aritzen diren neskak ezagutzeko modua izan zuten



ARTXIBOKO ARGAZKIA

La Encina de Mata abesbatzak emanaldia eskainiko du larunbatean Kultur Etxean.






# LESAKA

**GIZARTEA** ➜ APIRILAREN 18AN ATERA ZEN

## Hogei urte preso eman ondotik libre da Iñaki Fagoaga

Beñat Atorrasagastik ez du kartzelara joan beharko

**Aitor AROTZENA**

Apirilaren 18an aske utzi zuten Iñaki Fagoaga Alacant-en, Espainiako espetxe ezberdinetan kasik 20 urte eman ondotik. Bertan senideak eta lagunak zituen zain eta arratsean herrira ailegatu zen. Bertan, jendetza zuen zain, ongi etorria egiteko. Azken urteak Alacanteko espetxean igaro ditu eta aldez aitzinetik Estatu Espainiarreko hainbat espetxetan egona zen: Carabanchel, Cuenca eta Darocan.

Bertze aldetik, Pariseko Auzitegiak hiru urteko kartzela zigorra ezarri dio Beñat Atorrasagastiri, baina ez du kartzelera joan beharko. Epaileak kontutan izan du bere aurkako auziaren arrazoiak «zaharrak direla».

### Txoko-Txiki lehiaketa

Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketaren hogeita hamargarren edizioa antolatu du Tantirumairu ikastolak, Udalaren laguntzarekin. Herriko 6 eta 12 urte bitarteko ikasleek hartu dezakete parte lehiaketan. Ipuinen kasuan, gaia librea izanen da eta eskuz idatzita aurkeztu beharko dira, idazkera ulergarria eta txukuna erabiliz. Ilustrazioetan, berriz, *Barbantxo* ipuina marrazkien bidez azaldu beharko dute. Kasu honetan DIN A4 neurrian aurkeztu behar dira marrazkiak, nahi den teknika erabiliz. Lan guztiak goitizenez sinatuko dira eta aparteko orri batean, egilearen izena, adina, maila eta helbidea idatziko dira. Dena kartazal batean sartu ondoren, maiatzaren 6a baino lehen ikastolara igorriko dira.

### Antepasetan auzolana

Antepasetako parkean auzolanean aritu ziren apirilaren 20an hainbat lagun, tartean Gazte Asanblada eta Tantirumairu Ikastolako eta Irain Eskolako Guraso Elkarteko kideak. Pareta eta erreka bazterrak garbitzen aritu ziren. Garbituriko paretan, haurrek marrazki handi bat egitea da asmoa, parkeari bizitasuna emateko. Maiatzaren 11n berriz ere auzolanera joanen dira, goizeko 8:30ean. Bertan parte hartzera animatu dute Gazte Asanbladatik eta Guraso Elkarteetatik.



ARGAZKIA: JASONE TELLETXEA

### Nafarroako Soinularien Topaketa arrakastatsua

Ehun bat akordeolari bildu ziren apirilaren 21ean, herrian ospatu zen Nafarroako Soinularien Egunean. Igande eguerdian kalejiran ibili ziren Nafarroa osotik etorritako 60 bat soinulari, herriko Aldave konpositorea gogoratuz minutuko ixilunea gorde ondotik. Tantirudantza jaialdiko bukaerako kalejira ere jo zuten eta gero, Linddurrenbordan ehun bat lagunek bazkaldu zuten giro ederrean.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Ehun dantzari baino gehiago Tantirudantza jaialdian

Tantirumairu Euskal Folklore dantza taldeak antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatu zen apirilaren 21ean. Herriko dantza taldeko neska-mutikoekin batera, Tolosako Udaberri, Getariko Gure Txeru eta Dulantziko Haize dantza taldekoak izan ziren aurtengoan, ehun dantzari baino gehiago. Goizeko kalejiraren ondotik, *Zubigainekoa* dantzatu zuten herritarrek eta gero talde guziek bere emanaldia eskaini zuten plazan. Bazkalondoan, *Irrien Lagunak* ikuskizuna eskaini zuten plazan eta dantzan, kantari eta lasterka ibili ziren neska-mutikoak.

XATURETXEA JATETXEA
T: 948 637 260 · LESAKA

IRU BIDE

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

BEKO

kattagorria
Beheko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 637 514

# ETXALAR

KIROLA ➜ ANTOLATZAILEAK KONTENT

## Hagitz arrakastatsua izan zen Etxalarko lehen Mendi Itzulia

515 mendizalek parte hartu zuten

**Irune eta Itsaso**

Apirilaren 21ean izan zen lehenengo mendi itzulia eta uste baino jende gehiago animatu zen parte hartzera. Eguraldi ederra lagun, guztira 515 parte-hartzaile izan ziren. Eskualdetik jende andana animatu zen, baita Gipuzkoa, Bizkaia eta Iparraldetik ere. Parte-hartzaileen erditsuek egin zuten itzuli luzea eta bertze erdiek itzuli ttikia. Herriko 80 laguntzaile izan ziren, goizeko 5etarako frontoian prestaketekin hasi eta arratsaldeko 6etarako dena bildu arte lanean aritu zirenak. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete lerro hauen bitartez.

### Usoa kooperatibako batzarra

Usoa kooperatibako urteko batzar orokorra egin zen Larraburuan apirilaren 20an. 2012ko akta onartu, galdu irabazien kontuak eman eta urteko balantzea onartu, pentsuen prezioak eta egoera orokorra aztertu eta gasolindegia eta tarjetero berriaz mintzatu ziren. Azkenik 3 sarien zozketa egin zen eta denak Orizki auzora joan ziren. Zartagina Antsoneko Bordako Jaioneri tokatu zitzaion, alargadera Jonperoren Bordako Feliperi eta ardo kaxa Mendiondoko Ramoniri. La Basque jatetxean afaria egin zuten bazkideek.

### Herriko Ostatuaren errentamendua

Herriko Ostatua eta Jatetxea errentan emateko deialdia ateri du Udalak. Bortz urterako izanen da, hileko errenta 365 euro+BEZ eta behin-behineko fidantza 600 eurokoa. Gainerako xehetasunak 948635005 telefonoan. Interesatuek maiatzaren 15eko eguerdiko 2ak arte dute eskaintzak aurkezteko epea.

### Obrak igerilekuan

Sasoia ireki baino lehen hainbat obra eginen dituzte igerilekuak moldatzeko. Eskaintza bakarra aurkeztu zen (Lasaga-Tellechea) eta berari eman zaio (46.813 euro + BEZ) lana.







ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE, MATTIN SANZBERRO ETA IRATI LUJUA
Mendizaleak Loita, Azkua eta Usategietan.

### Igerilekuetan udarako langilea behar da

Nahiz eta igerilekua ekainaren 22tik abuztuaren 25era zabalik egon jendearentzat, ekainaren 21etik abuztuaren 26ra arte igerilekuetan aritzeko sorosle behar da; egunero 11:00etatik 20:00ak arte, jaiegunak barne. Deialdian parte hartzeko eskabideak maiatzaren 15eko eguerdiko 2ak baino lehenago aurkeztu behar dira udal idazkaritzan, norberaren curriculum-arekin, lan esperientzia, eta txosten bat zerbitzua eta bestelako jarduerak nola egiteko asmoa duen agertuz. Informazio eta xehetasun gehiago 948635005 telefonoan edota etxalar.org webgunean.

### Mendiak garbitzeko lana

Hirumuga, Burrarteko borda, Orizki eta Erbikarai aldeko mendiak garbitzeko lana eman nahi du udalak 9.000 euro pasatutan. Eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 16an akabatzen da, 14:00etan.

### San Migel

Aralarko San Miguelen irudiak bisita egin zuen Etxalarrera apirilaren 20an, urteroko ohiturari segituz.












ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# ARANTZA

**GIZARTEA** → HAINBAT LANETAN ARI DIRA

## Eskolako baratzeak itxura ederra du

Ikasle, irakasle eta gurasoak baratzeko lanetan gogotsu ari dira

**Nerea ALTZURI**

Eguraldi ederrak probextuz, herriko bertze etxe inguruetan bezalaxe, eskolako baratzean ere lan aunitz egiten ari dira. Patata, letxugak, perrexila, azenarioak, tipula eta erremolatxa erein dituzte eta konpostarekin ere segitzen dute. Lerro hauen bitartez, eskolatik, gurasoengandik, atautxiamatxiengandik eta udaletxetik etengabe jasotzen ari diren laguntza eskertu nahi dute ikasleek.

**EKAINAK 8**

Eskolaren mendeurreneko ospakizunaren harira, herriko zaharrenetatik hasita lekukotzak jasotzen ari dira eskolaren historia osatzeko. Luzia Iparragirre berriz, erakusketa osatzeko material bilketaren arduraduna da. Antolakuntzak bilerak egiten segitzen du eta ortzirale an biltzekoak ziren. Edonoren ekarpena ongi etorria izanen da.

**BERDINTASUN TRATAERA**

Duela hilabete bat adierazi moduan, martxoaren 8an hasita, eskolan berdintasun programa garatzen ari dira. Hauek dira talde desberdinek landu dituzten gaiak:

DBH: Sexismoa: gizon-emakumeon ezaugarriak. Ikasiak dira edo biologikoak?

3. zikloa: Berdintasuna lan munduan.

1go zikloa: Etxeko lanak. Bakoitzak bere familian inkesta bat egin eta hobetzeko ondorioak atera dituzte.

Bertzalde, soinketan, 3. zikloko eta DBHko ikasleek, emakumezko kirolari famatuen biografiak osatu dituzte.

Hurrengo gaia, Indarkeria sexista izanen dute. "Ez da txantxa indarkeria da" unitate didaktikoak landuko dituzte.

Azkenik, bigarren eta hirugarren zikloko nahiz DBHko ikasleek, plantxa tailerra egin zuten eta ikasleak hagitz gustora aritu ziren. Gainera, etxean laguntzeko konpromezua hartu zuten.





UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako neska-mutikoak baratzea lantzen goitiko argazkian eta plantxan beheitikoan.

**TELEKOMUNIKAZIOAK**

### Guifi.net sarerako zerrenda osatzen ari da herrian

**N. ALTZURI**

Bere jatorria, Kataluinian badu ere, hasiera hartatik bertze gune batzuetara zabaldu da sare hau. Telekomunikazio sare libre, ideki eta neutrala da Guifi.net. Herrian, interesa piztu du eta bizpahiru bilera informatibo egin ostean, interesa duen herritarren zerrenda osatu da udaletxean. Egin beharreko lanak( antena jartzea) ordaintzeko diru kopuru bat jarri dute interesatuek. Ondoren, hilabetero kuota bat izanen da. Sarearen edukiak: ip-telefonia sarea, internet sarbidea, herri irrati eta telebista sareak, streaming-a, txat-a, posta, web zerbitzariak… dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Mikel Karreraren epaiketan Parisen

Apirilaren 9an, herriko lagun talde bat, Mikel Karrera euskal preso politikoaren epaiketan izan zen Parisen. Luzio Urtubiak bere etxeko ateak zabaldu zizkien otorduak eta lo egiteko eta eskertu nahi izan dute bere prestutasuna.






**JENDARTEA ➜** JARDUNALDIEN ONDORIOZ

# Ezintasunen bat duten haurren gurasoen taldea sortu da

Hilabeteko bigarren astelehenetan bilduko dira Berako Osasun Zentroan

**TTIPI-TTAPA**

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Bortzirietako Osasun Etxeak antolatutako ezintasunaren inguruko zazpigarren jardunaldiak arrakastatsuak izan dira, 35 bat lagun bildu baitziren apirilaren 17an Lesakan. Aurtengoan, nerabezaroaz aritu dira jardunaldietan, eta lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzarako urratsa emateak suposatzen duen aldaketa izan dute hizpide.

Gainera, ezintasuna duten haurren gurasoen ekimenez, hilabetean behin bilduko den taldea ere sortu da. Esperientziak elkar banatzea eta elkarrekin lan egitea izanen da ezintasunen bat duten haurren guraso talde honen zeregina eta hilabetero, bigarren astelehenean bilduko dira 14:30ean Berako Osasun Zentroan. Lehenbiziko hitzordua maiatzaren 13an izanen dute. Ezintasunari buruz naturaltasunez solasteko eremu bat sortzea, esperientziak trukatzea eta familiek planteatzen dituzte behar ezberdinei erantzuna ematen saiatzea izanen dute helburu.



UTZITAKO ARGAZKIA

35 bat lagun bildu ziren ezintasunaren inguruko jardunaldietan.

**BAZTAN-BIDASOALDEA**

## XXVI. Bertsopaper lehiaketa abian da

**TTIPI-TTAPA**

Berako kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, 26. Bertso paper lehiaketa antolatu dute. Lanak Berako kultur etxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 17a baino lehen. Parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte:

**A maila:** 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi kopla osatu beharko dituzte. Saria: garaikurra + 50 euro (lehenengoak) eta 30 euro (bigarrenak).

**B maila:** (11-14 urte) Bi bertso edo lau kopla egin behar dituzte. Saria: garaikurra+100 euro eta 70 euro.

**C maila:** (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte. Saria: garaikurra+150 euro eta 120 euro.

**D maila:** 18 urtetik goti. Gutxienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: garaikurra+200 euro eta 150 euro.

Bortzirietako bertso eskolako kideek aukeratuko dute epaimahaia. Maiatzaren 31n, izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan.















ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# GAZTE OIHUA

**GIZARTEA** ➜ GAZTE MUGIMENDUA

## Giro ederrean joan dira Lesakako eta Berako Gazte Egunak




**GAZTE OIHUA**

*Ametsari tira ta tira, gaztetxia herrira* goiburupean Lesakako Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Eguna arrakastatsua izan zen apirilaren 13an. Goizean txistularien karrikabueltarekin hasi eta ondotik Berako eta Leitzako gaztetxeetako kideekin "hagitz solasaldi interesgarria" izan zuten. Ondotik pankartak eta 12 paellak egin zituzten. Irabazlea Matxakaranena suertatu zen. 130 lagun inguru elkartu ziren plazan paella jatera. Bazkalondoan jokoak izan zituzten. Skandalue elektrotxarangarekin poteoan eta karpako kontzertuekin akautu zen egun bikaina.

Balorazio hagitz positiboa egiten du gazte asanbladak eta eskerrak eman nahi dizkiete «Kaxerna eta Atekabeltz gaztetxeetako kideei beren esperientzien berri emateagatik, baita Gazte Egunaren antolakuntzan lagundu diguzuen guztiei eta orokorrean, Lesakako herriari, erakutsi duten pazientzia eta asmo onarengatik».

### BERAKO GAZTE EGUNA ERE GIRO EDERREAN

Goizean, eguraldia lagun, jendeak hagitz gustora hartu zuen parte tailer ezberdinetan eta Tximeletak dokumentala ikusi zuten gero. Bazkarian 80 bat lagun bildu ziren eta bertsolariekin irri batzuk egiteko aukera izan zuten kopa hartzen zuten bitartean. Ondotik gaztetxetik herrira musikaren laguntzaz jautsi ziren eta herriko ostatuetan zehar poteatu zuten. Bukatzeko, luntxa jan eta Mikel Morcillok musika paratzen zuen bitartean gazteak besta giroan murgildu ziren. Iluntzean jende pila bat hurbildu zen herrira eta antolatzaileek diotenez "kristoneko girua" egon zen. Pozik gelditu dira beraz Berako gazteak, eta ziurrenik ingurukoak ere, gazte egunarekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK
Berako Gazte Eguneko argazkia goitian eta Lesakako Gazte Eguneko jokoak beheitian.

**GAZTE ERAKUNDE BERRIA**

## Baztango eta Malerrekako Ernai aurkeztu dituzte egunotan

**TTIPI-TTAPA**

Martxoaren 2an Lizarran aurkeztu zuten Ernai, Ezker Abertzaleko gazte antolakunde berria. Ordutik, Baztango Ernai bere funtzionamendua zehazten ibili da eta azken asteotan, ezagutzera eman da. Aurkezpenak kuartelka egin ditu: Anizen, Iruritan, Amaiurren eta Elizondon. Azken horren ondotik, bertso-triki-poteo bat ospatu zen eta gauean, Ufestuek eta Kalapite-ren kontzertuak egon ziren Baztango Gaztetxean.

Aurkezpenetan Ernai-en helburu estrategikoa azaldu dute, antolakuntzaz Euskal Herri independente, sozialista eta feminista bat lortzea delarik. Bertzalde, Baztango Ernai-ek tokiko problematikak landuko dituela adierazi zuen, hortaz, irekia dagoela baztandar gazte guztien proposamen eta asmoak jasotzera, izan ere, bere helburu nagusia Baztango gazteria aktibatzea da.

### MALERREKAKO ERNAI ERE AURKEZTU DUTE

Apirilaren 13an, arratsaldeko 5ak aldera Iturengo plazan elkartu eta poteoan ibili ondotik, Ernai gazte antolakundea aurkeztu zuten Malerrekako gazteek. Ondotik berendu afaria egin eta denak elkarrekin Lesakako gazte egunera joan ziren. Giro ederrean eman zioten hasiera beraz, gazte antolakunde berriari eta borrokarako gogoz egin zuten topa.





UTZITAKO ARGAZKIAK
Malerrekako (goitian) eta Baztango aurkezpenetako bat (beheitiko argazkian).



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA
Unai Ruiz, Iraitz, Enaitz, Saray, Mikel, Unai Bastante, Iker, Asier, Manex, Iradi, Xuban, Beñat, Pablo eta Oier, lehen jaunartzea egin ondotik.

**OSPAKIZUNAK→** APIRILAREN 14AN

# Lehen jaunartzea egin dute hamalau neska-mutikok

## Don Basiliori omenaldia ere egin zitzaion

**Maider PETRIRENA**

Herriko 2 neska eta 12 mutikok egin zuten lehen jaunartzea. Aipatu beharra da oso meza polita izan zela eta bukaera ezin politago. Bertan bi gurasok egin zituzten irakurgaiak (Ines Obregozo eta Gari Ayesa) baita bi haurrek eskariak irakurri ere, Iradi eta Asierrek. Palota pasatzen ere hainbat guraso ibili ziren. Jaione Otxandorenak gidaritza lanak egin zituen elizkizunean. Don Basilio apezak, 61 urte ondotik elizako zuzendaritza lanak utzi ditu eta omenaldi ttiki bat egiteko herri guztiaren izenean Julen Zelaietaren 2 bertso hauek kantatu zizkioten 14 neska-mutikok, Miren Hernandorena akordeoilariaren laguntzarekin. Doinua: mutil koxkor bat.

*Hirurogeita bat urte jada,*
*pentsatuz, tokitan daude!*
*Sunbillan zure zai zeudelako*
*sakristi eta aldare*
*gure herrira, apez gisara*
*etorri zinen, halare,*
*hainbat arlotan aritu zara*
*beti herriaren alde*
*ta orain ezin joaten utzi,*
*esker onik eman gabe (bis)*

*Abesbatzan ta txistuan maisu*
*izan zinela medio,*
*behar zenean umorez eta*
*behar zenean serio.*
*Bertan euskara mantentzea da*
*zure lanen ondorio,*
*guretzat ere ez da errexa*
*erran beharra adio,*
*beti zorretan egongo gara;*
*milesker Don Basilio! (bis)*

Emozio guzti hau akitutakoan, Don Basilioren laguntzaile zegoen Pello Obregozok aipamena egin zuen hurrengo egunean, apirilaren 15ean Don Basilioren urtebetetzea zela eta elizan geuden guztiok *Zorionak* kantatu genion. Asko emozionatu zen Don Basilio bere agurraren egunean.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Mikel Donearen irudia herrian

Apirilaren 21ean Mikel Donearen irudia etorri zen herrira, arratsaldeko 6etan. Meza ondoren adorazioa egin eta etxeetan dauden eriengana joan zen beraiek ere adorazioa egin ahal izateko.

### Ba al zenekien…?

**Ortziralero Tapak dohan direla Ariztigain, Bustitz, Fonda eta Itturburu ostatuetan, atsaldeko 6tik 9etara, apirilaren 5etik ekainaren 21a bitarte.**

## FLASH

### Eskolako aferak

Apirilaren 11 eta 12an Xorroxin Irratia izan zuten eskolan. Hainbat gauza ezberdin antolatu zituzten taldeka 107.9 sintonian hitz egiteko. Bertzetik aipatu haur hezkuntzako ikasleek apirila eta maiatza bitartean Nafar Gobernutik jasoko dutela fruta astearte, ortzegun eta ostiraletan. Horrez ondorioz gurasoek etxetik astelehen eta asteazkenetan bakarrik bidali beharko diegu gosaria.

### Malerrekako Egunerako mus txapelketa

Maiatzaren 25ean Malerrekako eguna Eratsunen ospatuko da. Bertan mus finala izanen da eta horretarako herrietan mus txapelketak eginen dira. Sunbillako Mus Txapelketa maiatzaren 11n eginen da arratsaldeko 6etan. Animatu!






# DONEZTEBE

**OSPAKIZUNAK** ➜ MAIATZAREN 10EAN

## Udaberriko Ferian zazpigarren ahari lehiaketa eginen da

Doneztebarrak elkarteko denden erakusketa eta salmenta ere eginen da

**TTIPI-TTAPA**

Urtero garai honetan ohikoa den hitzorduari hutsik egin gabe, Doneztebeko Udalak, Cederna-Garalur eta Doneztebarrak merkatari elkarteak Udaberriko Feria antolatu dute maiatzaren 10ean, ortziralarekin, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

10:00etan emanen zaio hasiera azokari. Ordu horretatik 14:00etara, eskualdeko artisauen erakusketa izanen da. 11:00etatik 13:30era, berriz, aurten zazpigarren aldiz, ahari lehiaketa eginen da Merkatu Plazan.

Beti bezala, Malerrekako latxa arrazako ahari lehiaketa izanen da eta mutur gorriendako eta mutur beltzendako hiruna sari banatuko dira: kategoria bakoitzean, lehenbiziko sarituek 120 euro jasoko dituzte; bigarrenek 70 euro eta hirugarrenek 50 euro. Sari banaketa 13:30ean eginen da Merkatuko plazan. Horrez gain, ahari buruak aurkezten dituzten baserritarrei 30 euro emanen zaizkie parte hartzeagatik.

Aurtengoan berrikuntzak ere izanen dira. Doneztebarrak elkartearen eskutik, 10:00etatik 20:00etara elkarteko denden erakusketa eta salmenta izanen da. 17:30ean haurrentzako aktibitateak izanen dira eta 19:00etan, udaberriko kanpainaren baitan, 200 euroko baleen zozketa eginen da.

### Pintxo lehiaketa

Seigarren urtez, pintxo lehiaketa eginen dute herriko zortzi ostatutan maiatzaren 1etik 5era.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskulangileek ere bere lanak plazaratuko dituzte, beti bezala.

Zehazki, Ameztia, Bixen, Ekaitza, El Cafe, Maylin, Shanti, Irrintzi eta Titi ostatuetan eskainiko dute pintxoa dastatzeko eta bozkatzeko aukera. Udalak, ANAPEH elkartearen eta Iñurrieta upategiaren laguntza izan du aurten ere lehiaketa antolatzerako orduan.

**KULTURA**

## 2.700 ikusle izan ditu zineko denboraldiak

**TTIPI-TTAPA**

Apirilaren 28an Mendaur eta Erreka guraso elkarteek azkeneko bi pelikula bota zituzten aurtengo zine denboraldiari bukaera emanez. Balorazioa egin nahian antolatzaileek azpimarratzen dute 2.700 ikusle izan direla eta 24 pelikula pantailaratu direla.

Guraso elkarteetatik jakinarazi nahi da bildutako dirua gastuak ordaintzeko erabili dela (pelikulak, asegurua, eskubideak…) Gastu horretaz gain, diruaren beste zati bat hainbat ekimenetan inbertitu da: ekimen sozialetan (1.000 euroko ekarpena elikagai bankurako), ekologia eta birziklapena lantzeko proiektuetan (udazkeneko tailerra eta Doneztebe udaberritua tailerra) eta ekimen kulturaraletan (ipuin kontaketa,bestak…)

Eskerrak emateko unean, Erreka eta Mendaur elkarteek bereziki ikusleei ematen dizkiete; Burrunbari (ekipoa uzteagatik); Udalari (lokala uzteagatik eta gastuak bere gain hartzeagatik) eta Doneztebarrak Merkatariei (egindako ekarpen ekonomikoagatik).

Heldu den azaroan berriro zinearekin jarritzeko asmoa azaldu dute antolatzaileek; kartelera betea eta ekimen berriak prestatuz.






# ELGORRIAGA

**HERRIKO ETXEA** ➜ LANGILEA HARTU DU UDALAK

# Mendiko aterpe bezala erabiltzeko moldatzen ari dira Bostorratzen borda

Herriko sarrera garbitu, iturri ondoa desbrozatu eta udaletxeko lehen solairuari zola ere eman dio

**Mattin LARRALDE**

Udaberri honetako lehen eguzki brintxak ikusi ditugu, baita gustura hartu ere negu euritsuaren ondoren.

Aurreko alean aipatu genuen Herriko Etxeak langile bat hartua zuela eta bere lehen lanak ikusten ari dira. Herriko sarrera garbitu, iturri ondoa desbrozatu eta belarra bildu ditu. Udaletxeko lehen solairuari zola ere eman dio eta Bostorratzen borda moldatzen ari da, gero mendiko aterpe bezala geratzeko.

Hurrengo aleetan ikusiko ditugu egiten joaten den gauza gehiago ere.

### Daniel Mataren kontzertu arrakastatsua

Besta arrakastatsua egin zen Herriko Ostatuan apirilaren 12an. Daniel Matak kontzertu bikaina eskaini zuen eta bertako nahiz kanpoko jende asko hurbildu zen bertara, artista hau ikustera eta zergatik ez, besta pixko bat egitera, giroak horretara gonbidatzen zuen eta. Zorionak antolatzaileari eta hortan jarraitu.





**DONEZTEBE**

## Administrazio aferetan laguntza emanen zaie abeltzainei

**TTIPI-TTAPA**

Zerbitzuetarako sarbidea eta administrazioarekin egin beharreko tramiteak erraztuko dizkie abeltzainei Doneztebeko Udalak. Berriki, Izaba, Uztarrotze eta Luzaideko udalekin batera, Doneztebekoak ere proiektu piloto bat garatzeko hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuarekin.



# ARKUPEAK

GIZARTEA ➜ ARKUPEAK ELKARTEA

## Urrira bitarte egin behar dituen ekitaldien berri eman du erretiratu elkarteak



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Ez daude geldirik egoteko jubilatuak. Argazkian, sagardotegira egin zuten ateraldia.

Zazpigarren buletina argitaratu berri du elkarteak

**Fernando ETXEBERRIA**

Arkupeak Elkarteko kideek, aurten ere, ez dute aspertzeko tarterik izanen. Egingo duten lehenengo irteerak Añanara eramanen ditu. Arabako Gatz Harana ere deitzen zaio inguruari eta kultur eta historia arloan oso aberatsa da.

Mendigoizaleek ere badute non gozatua. Bost egunez, Nafarroako Pirinioetan barna ibiliko dira, Isaba aldean eta Orhi, Hiru Erregeen Mahaia, Petretxema, Txamantxoia, Lakartxela eta Auñamendira igotzeko probextuko dute aukera. Inguru lasaiaz gozatu eta gune turistikoetan barna ibilaldi ttikiak egin nahi dituztentzat ere bisitak programatuko dituzte.

Dagoeneko urteroko tradizio bihurtu diren irteerak ere antolatu dituzte: Puente Viesgora, Aralarrera (Gorraizko Gaztelua jatetxea famatuan bazkalduko dute), Arantzazura eta Lezora.

Irailean, Carlomagnoren bidean barna bidaia bat egiteko asmoa dute. Bisitatuko dituzten hirien artean: Lovaina, Brusela, Bujas, Gante eta Luxenburgo daude.

Benidormera bidaiak ere ezin zuen hutsik egin. Aurten irailaren 27tik urriaren 9ra bitartean egonen dira. Bertzalde, aurten 85 urte bete edo urrezko ezteiak ospatu eta urriko omenaldian parte hartu nahi dutenek, herri bakoitzeko arduradunei jakinarazi behar deietela gogorarazi dute.

Aurten bertze bi proiektu handi ere baditu Arkupeak Elkarteak esku artean: Santiagoko bidea egitea eta Machu Picchura bidaiatzea. Hitzaldiak eta ikastaroak ere jasoko dituzte: sendabelarren ingurukoak, memoria lantzeko tailerrak, liburu elektronikoa erabiltzen ikastekoak...

Bertze albiste garrantzitsu baten berri ere ematen dute boletinean. Duela gutxi arte, podologo bat etortzen zen Malerrekako jubilatuen lokalera. Bertako elkartea deseginda, udalak hartu du bere ardura. Arkupeak Elkartearen bertze egoitza bat egokituko da, podologoak bere zerbitzua eskaintzen segi dezan.

Boletina oso osorik irakurri liteke www.arkupeak.com orrialdean, eta baita ekintza eta bidaietan ateratako argazkiak ere.



# DONAMARIA-GAZTELU

**OSPAKIZUNAK** ➜ UDALAK PRESTATUTA

## Kulturaldia antolatu dute maiatzaren 1etik 4ra

### Larunbatean, kantu afariarekin akituko diren hainbat ekitaldi izanen dira

**Izaskun GOÑI TELLETXEA**

Donamaria-Gazteluko Udalak antolatuta Kulturaldia eginen da egunotan. Maiatzaren 1ean, asteazken arratsaldeko 6etan haurrendako filma eskainiko da erabilera anitzeko aretoan eta 8etan *Gartxot* filma emanen dute leku berean.

Maiatzaren 2an, ortzegun arratsaldeko 5etan Goxoki tailerra eginen da, erabilera anitzeko aretoan. 18:30ean Gorputz heziketako tailerra eginen da herriko plazan. 20:00etan *Zaborrak nora?* hitzaldia izanen da erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzaren 3an, ortziralean, trukaketa azoka izanen da haur eta gazteendako herriko plazan, 17:00etatik aitzinera. 19:00etan talo tailerra eta berendu-afaria eginen dira frontoian eta 22:00etan mus txapelketa, Malerreka Eguneko finalerako txartela jokoan izanen da ostatuan.

Maiatzaren 4an, larunbat goizeko 9:00etan abiatuta Ibargoiarako mendi ibilialdia eginen dute haur eta helduek. Gosaria norberak eraman beharko du. Herrira bueltan, 11:30ean xaboi tailerra eginen da frontoian eta horretarako sukaldeko olio erabilia eraman beharko du partaide bakoitzak. Ordu berean, *Birziklatuz jostailuak eraiki* haurrendako tailerra eginen da eta brik eta ontziak eraman behar dituzte. 17:30ean *Conquista y desconquista de Navarra* hitzaldia eskainiko du Tomas Urzainkik jauregian. Ordu berean, Musuak margotzea eta margo lehiaketa haurrendako. 19:00etan Kantaldia Gaztelu Taldearekin, jauregian. 21:30ean Kantu-afaria Agerralderekin, Donamariako ostatuan. Txartelak salgai daude ohiko lekuetan.

### Donamariako Herriko Ostatua enkantean

Donamariako Herriko Ostatua enkantean aterako du udaletxeak. Interesatuek maiatzaren 22rako aurkeztu beharko dute beren proposamenak. Errentamenduaren iraupena urtebetekoa izango da, luzagarria bi aldeak ados baldin badaude. Hileko errentaren hasierako prezioa 300 euro + BEZa izanen da eta behin-behineko fidantza 1.000 eurokoa. Interesatuak udaletxean eskura dezakete baldintza plegua. Eskaintzak maiatzaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Enaitz Iriartek brontzezko domina lortu du Nafarroako judo txapelketan**

Alebin mailako Nafarroako Judo txapelketa jokatu zen Iruñean. Bertan, Enaitz Iriarte herritarrak hirugarren postua lortu zuen, beraz brontzezko dominarekin etxeratu zen. Zorionak!

?

*Ba al zenekien…*

**Donamariako Bentako Haizea Luzuriaga sukaldaria Euskal Telebistako Txoriene saioan agertuko dela. Euskal Herriko 9 jatetxe eta bertako sukaldariek parte hartuko dute. Sukaldari bakoitzak bost egunez bere errezetak prestatuko ditu astelehenetik ortziralera, 13:30ean eta 19:00etan. Donamariako Bentako sukaldaria izanen da Nafarroako ordezkari bakarra.**

# BEINTZA-LABAIEN

**UDALA** ➜ MARTXOAREN 18KO UDAL BATZARREAN

## Kargua utzi dute alkateak eta zinegotzi guztiek

### Udala kudeatzeko batzordea izendatzeko deialdia egin da

**TTIPI-TTAPA**

Martxoaren 18ko udal batzarrean kargua utzi zuten Patxi Otxandorena Beintza-Labaiengo alkateak eta zinegotzi guztiek. 2011ko maiatzean eta azaroan egindako hauteskundeetan ez zen hautagaitzarik aurkeztu eta alkate eta zinegotzi lanak bete ditu herritar talde honek azken urte terdian. Baina erreleboa inork ez duela ematen eta «jende berria sartzera animatzeko», karguak utzi dituzte. Orain, udalik gabe dago Beintza-Labaien eta Nafarroako Gobernuak udala kudeatuko duen batzordeko kideak izendatzeko deialdi publikoa onartu du.

Interesatuak dauden pertsonek izena eman dezakete. Horretarako adinez nagusiak eta "herrian sustraituak" izan behar dute.

Beraz, egiteko horretan jarraitzeko animatu nahi ditugu herritarrak, eta orain arte hurbildu ez direnak parte hartzera gonbidatu. Denen artean politagoa eta osatuagoa izango dela dudarik ez dago.

Beraz, aurrerago egingo diren deialdien berri jakinaraziko da eta bitartean eragin buruari!

# ITUREN

GIZARTEA ➜ HEZKUNTZA

## Aurten ere Pulunpa eskolan izan da Xorroxin Irratia

Parte hartze handia izan zen apirilaren 17, 18 eta 19an

**Arkaitz MINDEGIA**

Xorroxinen bisita jasotzen dute urtero eskolan, eta bizpahiru egunez ikasle, irakasle eta gurasoek irrasaioak egiten dituzte. Aurtengoan apirilaren 17,18 eta 19an goizean egin zituzten saioak. Bertan ikasleek berrien atala eta bertze hainbat saio uhineratu zituzten. Saio horietan hainbat gai landu zituzten medikuntza, zuhaitza, Egipto, bertsolaritza… Elizondoko eta Lesakako Xorroxineko kazetarien pausuak ederki segituz.

Erran digutenez, egin dituzten saio guzietan herriko jendearen parte hartze haundia izan dute . Orain hurrengo urterarte agurtu dute Xorroxin Irratia, baina egin dutena ikusirik, noiz etorriko zain ilusio handiarekin gogotsu!

### Artisau eta lanbide azoka

Iada baditu hilabete pare bat baino gehiago artisau eta lanbide azoka martxan dagoela. Hilabetearen bigarren igandean Iturengo plaza gisa guztietako postuz betetzen da. Apirilaren 14koan giro bikaina izan zen, eguraldiaren laguntzarekin eta hurrengoa maiatzaren 12an izanen da , animatu !!!

### Ander Erasun finalerdian

Apirilaren 20an Beran jokatutako Urrezko Aizkora txapelketako final laurdenetako saioan bigarren izan ondotik, finalerdirako txartela eskuratu du Ander Erasun aizkolari aurtiztarrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Mendaur Trikitixa Eskolakoak Lekarozen

Urrian hasi eta maiatza bitarte herriko trikitixa eskola ikasleekin gogor ari da trikitixa eta panderoa erakusten. Tarteka herrian bertan edo kanpoan erakustaldiak egiten dituzte. Apirilaren 14an Lekarozen egin zuten beraien kalejirajaialditxoa. Iturengo trikitilariez gain, Oronoz, Oiz, Urroz eta Lekarozkoak aritu ziren. Herria ederki alaitu zuten kalejira batekin eta nola ez plaza inguruan talde ezberdinek beraien kantutxoak jo eta kantatuz jendearen aurrean. Luntxarekin indarrak berrituz *Txapeloa* abestiarekin bukatu zuten emanaldia.

# ZUBIETA

GIZARTEA ➜ ZAZPI NESKA-MUTIKOK

## Maiatzaren 12an eginen dituzte lehen jaunartzeak

**Fermin ETXEKOLONEA**

Zazpi neska-mutikok eginen dute lehen jaunartzea: Marion Elizalde, Lora Santesteban, Luaia Fagoaga, Iker Loiarte, Aimar Iribarren, Saioa Mariezkurrena eta Ixone Elizalde.

### Mus txapelketa

Malerrekako Eguna maiatzaren 25ean izanen da Eratsunen. Mus txapelketa ere jokatzen da eta herri bakoitzean egiten da kanporaketa. Zubietakoa Errandonea ostatua maiatzaren 10ean jokatuko da, arratseko 10:00ak aldera. Txapeldunak herriko ordezkariak izanen dira Malerrekako Egunean.

### Aingeruak

Maiatzeko igande eta jai egun guztietan eta Bestaberri egunean, Amabirjinari loreak eskaintzen dizkiote herriko neskek. Bittori Erasun aritzen da serora lanetan eta berak aipatu digunez hauek dira ain -geruak: Naiara Ansó, Naroa Santesteban, Garaxi Santesteban, Ixone Elizalde, Jone Indakoetxea, Saioa Mariezkurrena, Luaia Fagoaga eta Lorea Santesteban.

### Reggae kontzertua Herriko Ostatuan

Maiatzaren 3an, Herriko Ostatuan kontzertua eskainiko du Barañaingo Soñadores Natos taldeak 22:00etan.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Argazkian ageri denez, egur loteak atera  ditu udalak eta herritarrak lanean ari dira.

GIZARTEA ➜ BIDE SEGURTASUNA

# Abiadura moteltzeko hiru baden paratu dira

Duela bi urte sinadura bilketa kanpaina egin zen hori eskatuz

**Martin BERTIZ**

Abiadura moteltzeko hiru baden edo koska jarri dituzte herrian, bat sarrera batean, bestea beste sarreran eta hirugarrena herri erdian, denda parean. Kotxeen abiadura dela eta, jendeak aspaldi eskatzen zuen badenak jartzea; duela urte pare bat sinadura bilketa bat egin zen baina itxaron beharra izan da. Moldatze lanak udaletxearen kargu izan dira.

## Plastikozko tapoiak biltzeko tokia

Ester janaridendan plastikozko tapoiak biltzeko kutxa bat jarri da, tapoiak Berako Labiaga ikastolara eramanen dira.

## Garbiketa lanak mendian

Pasa den urtean bezala, aurten ere garbiketak egin dira mendian. Garbiketak erreketen bidez egin dira, aurten Meateko zonaldean egin dire erreketak eta horretarako herriko hamabost bolondres eta bots suiltzaile haritu ziren. Ez zen suarekin arazorik izan eta eguna giro ederrean joan zen.

## Urte bat ostatuan

Urte bat pasa da Barbarak herriko ostatua hartu zuenetik, gustora eta ilusioakin omen dago. Bere urteurrena ospatzeko joan den apirilaren hamahiruan arratsaldeko seietan nahi zuen guztiarentzat merendu goxoa prestatu zuen.





ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Herri sarreran jarritako badenetako bat goitiko argazkian eta mendian egindako garbiketa lanetako irudia beheitikoan.

NAFARROAKO GOBERNUAK

# Milioi bat euroko dirulaguntza eman die hamabi Enpresa Ttiki eta Ertainek garatzen ari diren 5,2 milioi euroko inbertsioei

Tartean daude Iruritako Onena Tailerrak eta Doneztebeko Mikel Mutuberria zurgindegia

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako Gobernuak 1,06 milioi euro emango die 5,2 milioi euroko hamabi inbertsio bukatuta edo bukatzear dituzten hamabi Enpresa Ttiki eta Ertainei. Eskualdeari dagokionez, Doneztebeko Mikel Mutuberria zurgindegiak eta Iruritako Onena Tailerrak jasoko dute dirulaguntza. Laguntza hori inbertsio guztiaren %17 eta %30 artean dago.

Beren inbertsio-proiektua akituta edo akitzear duten industria-izaerako enpresak dira eta, beraz, badaude aberastasuna sortzeko datuak. Zehazki, 19 lanpostu sortu dira, hau da, %12 igo da inbertsioak hasi aitzinetik lanean zeuden 157 pertsonarekin alderatuz. Gainera, 2012ko datuekin, enpresa horiek beren fakturazioa % 34 handitu dute, 25,1 milioi eurora iritsi dira.

Proiektu guztiak ETEek sustatu dituzte (% 58 enpresa txikiak dira, 10 langile baino gutxiagorekin) eta enpresa horiek zailtasun handiagoak dituzte finantzaketa lortzeko. Lau Iruñerrian daude; hiru Sakanan; bi Baztan-Bidasoan; bi Lizarraldean; eta bat Erriberan. Gobernuaren arabera, ekonomiarentzako proiektu dinamiko eta interesgarriak dira.

# GIZARTEA

**HONDAKINAK** ➜ IKASLEEK EGINDAKO MUNSTROEN ERAKUSKETA MAIATZAREN 17AN

## Gaikako bilketa sustatzeko kanpaina abiatu da eskualdean

Doneztebe, Baztan eta Berako 62 ikaslek parte hartu dute erakusketa ibiltarirako munstroak sortzen

**TTIPI-TTAPA**

Baztango udala eta Bortziriak eta Malerrekako Mankomunitateak eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak "Zure hondakinek bizitza luzea dute, birzikla itzazu" kanpaina aurkeztu dute, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa fundazioaren bidez (CRANA). Kanpainaren helburu nagusia herritarrak sentsibilizatzea da, hondakinen prebentzioan eta birziklapenean inplika daitezen.

Nafarroako Gobernuak, izan ere, hitzarmena egina du hondakinak kudeatzeko sistema integratuekin: Ecoembes, Ecovidrio Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofimática, Ecolec, Ecolum, Ecoraee, Ecotic, Europako Birziklapen Plataforma eta Tragamóvil. Kanpaina, beraz, hitzarmen horren baitan dago eta CRANAren bidez garatzen da, hondakin mankomunitateek lagundurik. Hitzarmenek hondakinak gaika biltzeko sistemen garapena sustatzen dute, irizpide hauek erabilita: gizarte onarpena, eraginkortasun teknikoa, eta ingurumen nahiz ekonomia arloko bideragarritasuna. Era berean, herritarrei informazioa emateko eta jendea sentsibilizatzeko jarduerak egiten dira, gizartea kontzientziatze aldera.

Ekimen honek hainbat jarduera ditu: Doneztebe, Beran eta Elizondon izan zen erakusketa ibiltari bat, eta ondoren, herriz herri ibiliko da Nafarroan barrena. Mankomunitate horietako herritarrek, gainera, informazio-triptiko bat jasoko dute, bai eta pegatina bat ere, hondakin mota bakoitza non utzi behar den gogoratzeko eta edukiontzietan utzi behar ez dena (hondakin desegokiak) oroitarazteko.

**ERAKUSKETA ERAIKITZEN**

Erakusketa ibiltariaren zati bat herrian bertan sortuko da, "Izenik gabeko Munstroak" deritzon ekimenaren bidez. Horrela, María José Recalde eta Juan Sukilbide artista plastikoen zuzendaritzapean, parte-hartzaileek hondakinak erabiltzen ari dira munstro bat egiteko, guk sortzen ditugun hondakinen neurria irudikatu eta honako gogoeta hau eragite aldera: hondakinak ez baditugu behar bezala kudeatzen, munstro bihur daitezke, amesgaiztoa izatera irits daitezke. Munstro guztiak ikusgai jarriko dira Iruñeko Ziudadelan eginen den bukaerako erakusketan, maiatzaren 17a inauguratuko da. Den-dena blog honetan jasoa dago: *monstruossnmonstruoakig.wordpress.com*.







ARTXIBOKO ARGAZKIA
Bera, Donezteben eta Elizondon, birizklatutako materialekin munstroak sortu zituzten ikasleek.




betiko
P.V.C. eta aluminio zurgindegia
Zendow#neo aurkezten dugu
Errefortzu termikoa duen PVC-ko perfil berria
U f=1,0 W/m²ºK
U f = Perfilak duen isolamendu termikoa
(Gero eta U f txikiagoa, isolamendu hobea)
ALUMINIOA ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURARIK GABE
Aluminio sin rotura de Puente Térmico
ALUMINIOA ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURAREKIN MARKOA 77 mm. (Poliamida > 18mm)
Aluminio con rotura de Puente Térmico Marco 77mm. (Poliamida > 18mm)
PVC ESTANDARRA (Altzairuzko errefortzua)
PVC estandar (Refuerzo de acero)
PVC ERREFORTZU TERMIKOEKIN
Zendow#neo
U f=5,6 W/m²ºK
U f=3,1 W/m²ºK
U f=1,3 W/m²ºK
%560 isolamendu gutxiago
%310 isolamendu gutxiago
%30 isolamendu gutxiago
U f=1,0 W/m²ºK
ISOLAMENDU TERMIKORIK HAUNDIENA DUEN PERFILA DAUKAGU!!
ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!
Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak
Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423 | betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# ARESO

JENDARTEA → NAZABAL ESKOLA ETA GURASO ELKARTEA ELKARLANEAN

## Liburuak elkar trukatuz ospatu dute Liburuaren Eguna eskolan

**Juana Mari SAIZAR**

Nazabal eskola eta Guraso Elkarteak elkarlanean Liburuaren Eguna ospatu zuten apirilaren 23an. Umeek liburu bana eraman behar zuten eskolara gero ziklokaelkar trukatu eta bi astez liburu hauek irakurzi - tzaten, eta gero berriro itzuli beren jabeei. Honekin liburu zaletasuna jorratu nahi dute.

Bestalde, Nafarroako hainbat eskola bezala, Nazabal ere Elikadura Kanpainan murgilduta dago, apiriletik ekainera. Nafarroako Gobernuak lagunduta dieta osasuntsu eta orekatu bat ohitura bihurtu dadin barazki eta frutak gosaltzeko bidaltzen ditu astean hiru egunetan. Honekin batera Nafarroako fruta eta barazkiak ezagutu, barietate handia eta ezezaguna bidaltzen baitu kontsumitzeko. Aurtengoa bigarren urtea da Kanpaina honetan parte hartzen dutena.



ARGAZKIA: IGONE GOIKOETXEA

Barazki eta frutak jateko kanpainan parte hartzen ari dira eskolako neska-mutikoak.



**Pertsonaia**

Adur ETXEZARRETA

### Bikain Espainiako eski txapelketan

Hiru aldiz igo zen podiumera herriko eskiatzailea Espainiako txapelketan. Jubenil mailan irabazle izan zen slalomean (4. sailkapen orokorrean) baita konbinatuan ere (3.), eta bigarren supererraldoian (19.).

# ARANO

UDALA → BIZI BIZIKI ENPRESAREKIN

## Turismo Planari ekin dio Udalak

**Ainhoa ANSA**

Aurten turismo plana egitea izan du bere ideien artean udalak, eta ideia hori aurrera eramaten ari da.

Urumea ibaia ardatz hartuta, Hernani, Ereñozu, Goizueta eta Arano bilduko dituen plan bat egiten ari da "Bizi biziki" enpresak gidatuta. Plan horretan lau udal hauek daude sartuta eta uda alderako web gune bat eta bestelako informazio euskarriren bat argitaratzea dute helburu guztien artean.

Aranoko udalak plan horretan parte hartzeko interesa hasieratik erakutsi zuen, baina herriko bertako plana ere burutu gabe izaki, bi egitekoetan murgildu da azken asteetan.

Herritarrekin bi bilera egin dira honezkero, eta parte hartzea polita izan da bietan. Hilaren 3an eta 10ean herriko elkartean dozena bat laguneko taldea bildu eta herriak dituen ezauga - rri positiboak eta interesgarriak identifikatzen ahalegindu dira.

Ezaugarri hauetatik abiatuta, eta egiteko dagoena ahaztu gabe, Aranon, turismora eta herritarren beharretara zabaltzeko beharrezko liratekeen ekintzak proposatuz bukatu zen azken bilera. Esan behar da, taldeak bilera hauetaz egindako balorazioetan, lanerako eta herria potenzializatzeko indarrez eta ilusioz nabaritzen dela jendea. Beraz, egiteko horretan jarraitzeko animatu nahi ditugu herritarrak, eta orain arte hurbildu ez direnak parte hartzera gonbidatu. Denen artean politagoa eta osatuagoa izango dela dudarik ez dago.

Beraz, aurrerago egingo diren deialdien berri jakinaraziko da eta bitartean eragin buruari!




ARGAZKIA: AINHOA ANSA

Parte hartze polita izan da herritarrekin egindako bi bileratan.

# GOIZUETA

**OSPAKIZUNAK ➜** MAIATZAREN 3 ETA 4AN

## Txinoko festak ospatuko dira asteburuan

Larunbateko txupinazoaren ondotik auzotarren eta herritarren arteko herri kirol desafioa jokatuko da

**TTIPI-TTAPA**

Beste urte batez, maiatzeko lehen asteburua aukeratu dute urtero indar gehiago hartzen ari diren Txinoko festak antolatzeko.

Maiatzaren 3an, ostiral arratsaldeko 6etan kontzertua eskainiko du Aralar Musika Eskolak. Eguraldi onarekin “Yandeneko orapen” izanen da emanaldia eta euria eginen balu Udaletxeko ganbaran. 20:00etan bertsolariak ariko dira Zubiondo tabernan. 22:30ean mus txapelketa jokatuko da leku berean. Bikote txapeldunak arkumea eramanen du saritzat eta azpitxapeldunek bi oilasko.

Halere, festetako egun handia larunbata izanen da. Goizeko 11:30ean dantzariak ariko dira Txino auzoan, baina euria eginen balu beheko frontoian. 12:00etan txupinazoa botako da, trikitilari eta buruhaundiekin. 12:30ean herri kirol desafioa jokatuko da: Txino auzoa vs herria. 14:30ean herri bazkaria eginen da goiko frontoian. 18:00etan musika izanen da eta 23:30ean kontzertuak gazteen tabernan NoNguayaz eta Patxuko Nice. Egitarau ofizialaz gain, «gau guzin giro earra ta nahi aiña parranda itteko aukera!» izanen dela ohartarazi dute antolatzaileek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Txupinazoa baino lehen dantzariak ariko dira Txino auzoan.

### Leitzaldeko Eskolen Topaketa

Leitza, Areso eta Goizuetako eskolen arteko topaketa maiatzaren 11n eginen da. Urtero herri desberdinean antolatzen da lau herrietako festa hau (Aranon eskolarik izan ez arren, hango ikasle eta gurasoek ere parte hartzen baitute) eta 2010ean bezalaxe, aurten ere Goizuetan eginen da egitarau zabalarekin eta *Birziklapena, murrizketak eta berdintasuna* goiburupean. 11:00etan elkartu eta gero kalejiran ibiliko dira, buruhaundi eta trikitilariekin. Ondotik, txikienentzako tailerrak izanen dira (margoketa, erroskilak, birziklatutako materialekin eskulanak…) eta Gazte Txokoan ping-pong eta futbolin partidak ere jokatuko dituzte.

13:00 aldera batukada iragarri dute eta musika-tresna gisara, eskolan birziklatutako materiala (potoak…) erabiliko dute. 14:00etan bazkaria izanen da eskolako frontoian. Norberak berea eraman beharko du, baina Goizuetako Guraso Elkarteak edaria, kafea eta pastak jarriko ditu.

Bazkal ondoren, 16:30etik aurrera berriz ere jokuak izanen dira haur eta gurasoentzat: futbol txapelketa azkarra, herri kirolak, egurrezko eskiekin lasterketak… «Herri ezberdinetako guraso, ikasle eta irakasleek taldeetan nahastuak aritzea da helburua, horrela hobeki elkar ezagutzeko eta harremanak egiteko», aipatu digu Guraso Elkarteko Maria Apezetxeak. Jokuen ondotik karaokea ere eginen dute.

**Ba al zenekien…?**

**Garikoitz Lopezek ordubete eta 20 minututan egin zuela plazatik Mandoegiko gainerako (1.045 metro) buelta apirilaren 21ean. Marka haundia dudarik gabe. Duela urte pare bat edo ordubete eta 33 minututan egina zuen Miel Angel Loiarte koadrilako kideak.**

**GOIZUETA-ARANO**

## Erreka garbitzeko deialdia egin dute maiatzaren 18an

**TTIPI-TTAPA**

Urumea erreka eta erreka bazterrak garbitzeko iaz Goizuetan egindako deialdiak arrakasta handia izan zuen eta 70 bat herritar aritu ziren, suhiltzaileen laguntzarekin txukuntze lan horietan. Aurtengoan, deialdi zabalagoa egin dute eta Goizuetarekin batera, Arano, Ereñozu eta Hernaniko herriek eta Guratrans elkarteak, CRANAk eta Euskal Autonomia Elkarteko Ura erakundeek egin dute deialdia maiatzaren 18rako. Boluntarioek izen emateko zerrendak jarriko dituzte Goizueta eta Aranoko udaletxeetan, autobusak osatzen joateko. Goizuetako Olatso eta Arran - bide inguruan, Aranoko Abañon eta Ereñozuko Ugaldetxo eta Fagollaga inguruetan egin nahi dituzte garbitze lanak, beti ere biltzen den jendearen arabera. Hasiera batean, goizean lan egin ondotik Benta Berrin hamaiketakoa hartzeko asmoa dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goizuetako boluntarioak erreka garbitze lanean, iaz.

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# LEITZA

**JENDARTEA** ➜ CARITAS-EN ESKUTIK

## Elikagai bilketa egin dute herriko dendetan

**JM BARRIOLA**

Krisialdian jende eta famili askok estutasunak izaten ditu, hori dela eta Leitzako Caritasen baitan 9 bat herritarrek, Gizarte Zerbitzuekin elkar lanean, elikagai bilketa egin dute apirilaren 22tik 28ra bitartean. Arratsaldeko 6:00etatik 8:00etara egon ziren karrapeko tabernan oinarrizko gaiak bildu eta antolatzen. Arroza, patatak, esnea, garbitzekoak, lixibak, jatekoak... Guztion laguntza ezinbestekoa izanen da larri dauden familiei laguntzeko eta herrian izan daitezkeen beharrak betetakoan, laguntza behar duten herrietara bideratuko da bildutakoa.

### Osasuna Fundazioaren bisita

Osasuna Fundazioaren futbol eskolak, aurtengoan ere bi jokalari profesional ekarri zituen herrira apirilaren 18an, Joseba Llorente eta Ekhi Senar, ume eta gazteekin hitzaldi bat izateko. Beti bezala Udal aretoa gainezka egon zen haiei entzun eta galderak eginez.Honetaz gain, bi kamiseta zozketatu zituzten Lacturale esne brik hutsak eraman zituztenen artean.

### Maxurrenea Herrintzat

Aieneko Ekimenekoak apirilaren 22an Nafarroako parlamentuan bildu ziren EHBildu, GeroaBai, Ezkerra eta UPNko ordezkariekin, Maxurrenea herrintzat ekimenaren berri emanez. Aldarrikapenaren berri zuzenean izatea nahi zuten. PPNk ez zuen hitzordurik eman eta PSNrekin ondoren biltzekoak ziren. Iluntzean herriko plazan jende ugari elkartu zen etxea leitzarrei itzultzeko eskatzeko.

### Sute kontrolatuen plana aurten osatu da, orain berria egin behar

Orain dela bost urte Udalak eta abeltzainen batzorde bateratuak, sute kontrolatuak egiteko plangintza bat landu eta martxan jarri zuen. Honekin larre erabilienak edota arrisku handia zuten parajeak, otediak ugaritu eta handiak zeudelako, kontrolpean eta modu arrazionalean erretzea bultzatu zen. Urtero edo bi urtetik behin, larre berak erre beharrean, urte askotan erretzen ez zirenak ere erretzea bultzatu zen. Bost urteko ziklo bat aurreikusi zen. Erreketak egiteko baimenak, Udalak berak eskatu ditu urtero eta abeltzainekin batera antolatu, EPRIF talde bereziaren laguntza lortzen zelarik. Emaitzak onak izan dira eta orain beste bost urteko ziklo berria osatzeko lanean hasiko dira.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA
Caritas-eko laguntzaileak, elikagaiak biltzen aritu ziren joan den aste horretan.




ARGAZKIA: JM BARRIOLA
Berriz ere Maxurrenea herriarentzat eskatzeko bildu dira leitzarrak.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA
Ekhi Senar eta Joseba Llorente Osasunako jokalariak neska-mutikoekin izan ziren.

**KULTURA ➜** FELIX MENAREN OMENEZ

# Argazki Rally digitala eginen da Oronozen igandean

## Itxusi argazki elkarteak antolatua

**TTIPI-TTAPA**

Felix Mena zenaren omenez lehen aldiz argazki rally digitala antolatu du Itxusi argazki elkarteak. Maiatzaren 5ean eginen da.

Igandean berean eman beharko dute izena partehartzaileek, 8:45etik 10:00etara elkartearen egoitzan, San Martin Kultur Zentruan. 18 urtetik goitikoek 5 euro ordaindu beharko dute eta ttikiagoek 3 euro. Rallyak bortz proba izanen ditu, eskualdeko naturarekin, artearekin, gizartearekin, kulturarekin, ohiturekin eta gisako gaiekin zerkusia dutenak eta argazkiak Baztan, Malerreka, Bertizaran eta Bortzirietan atera beharko dituzte.

Lehenengo saria bi pertsonendako egonaldi bat Aldekoa hotelean izanen da. Bigarren saria, bi pertsonendako bazkari bat Urgain hotelean eta trofeoa. Hirugarren saria, bi pertsonendako bazkari bat Pierresenea jatetxean eta trofeoa.

Horretaz gain, gai bakoitzeko argazki onenari sari berezia emanen zaio, baita bertako argazkilari onenari eta argazkilari gazte onenari ere. Lehiaketaren oinarriak *www.itxusi.com* webgunean aurki daiteke.

### Musika Eskolaren 25. urteurrena

Baztango Musika Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen barnean akordeoi taldeak kontzertua eskainiko du maiatzaren 5ean, igande eguerdiko 12:30ean Mariano Izetaren plazan. Aitzinetik, 10:45ean hasita kalejiran ibiliko dira.

### Udal langileak euskarazko administrazio hizkuntzan trebatzen

Pasa den apirilaren 9an Udaleko bederatzi langilek hasiera eman zioten iaz abitatutako euskara ikastaroaren bigarren atalari. NAPIko teknikari bat izanen dute irakasle eta ikastaroak guztira 30 orduko iraupena izanen du, astean bi orduko saioetan banaturik. Ikastaroaren helburu nagusiak naturaltasuna, argitasuna eta irakurgarritasuna helburu duten testuak ekoiztea eta kalitatezko testuak sortzeko oinarrizko irizpideez jabetzea izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hiru bildots umatu ditu ardiak Gartzaingo Berekotxeko bordan

Argazkian ageri denez, Gartzaingo Berekotxeko bordako ardi batek hiru bildots izan ditu umaldi bakarrean.



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

### Zigako ekitaldiak

Baztandarren biltzarraren 50. urteurrena dela eta Zigan orain arte bi ekitaldi antolatu dituzte: Gaztelu abesbatzaren kantaldia elizan eta argazkian ageri diren Baztango dantzak Jo ala jo taldearen eskutik herriko plazan. Milesker Baztandarren Biltzarra eta aunitz urtez!!



# BAZTAN

**OSPAKIZUNAK** ➜ APIRILAREN 21EAN IRURITAN

## Lore Jokoak arrakastatsuak suertatu dira

45 baztandarrek parte hartu dute literatura lehiaketan

**TTIPI-TTAPA**

Eguraldia lagun eta herritarren parte hartze handiarekin, arrakastatsuak suertatu ziren apirilaren 21ean Iruritan ospatutako Lore Jokoak. 1879. urtean Hego Euskal Herriko lehenbiziko Lore Jokoak Elizondon ospatu zirela gogoan izanik, Iruritan gauza bertsua egin zuten, Baztandarren Biltzarrak, Dorrea Elkarteak eta Baztango Kultura Batzordeak elkarlanean.

Goizean, txapelketako laxoa partida jokatu zuten Irurita A eta Arraioz B taldeek errebote-ko plazan. Etxekoek lortu zuten garaipena, 9 eta 5. Horretaz gain, laxoari buruzko erakusketa ere ikusgai izan zen gizarte bilgunean. Goizarratsaldez Jauregia irekita egon zen, Lore Jokoei buruzko erakusketa ikusteko. Eguerdian Euskal dantzak eskaini zituzten Iruritako dantzariek herriko plazan.

### SARITUTAKO OLERKIAK

Arratsaldean poema errezitaldia eskaini zuten Jauregiako lorategian, Xabi Urtasun iruritarraren musikarekin alaituta. 1879ko olerki sarituen eta 2013ko literatura lehiaketako irabazleen lanen aurkezpena egin zen. Duela bi mendeko olerkiei dagokienez, Baztandarren Biltzarreko ordezkariek irakurri zituzten. Amaia Elizagoienek Arrese Beitiaren *Ama euskarari azken agurra* irakurri zuen; Itziar Etxeberriak Ramon Artolaren *Altabizkarko kantua*; Jaione Elizagoienek Martin A - rruperen Adios *Amerikari* eta Elisa Almandozek Iparragirreren *Nafarroako alkarkidari*.

Orduko gai berarekin, euskaldunen gauzarik maiteena, bi mende beranduago ere literatura lehiaketa egin da. Aski arrakastatsua izan da lehiaketa, 45 lagunek parte hartu baitute. 6 eta 12 urte arteko mailan, Elizondoko Mikel Garzia Mendiberrik lortu du garaipena, *Txantxangorri idazlea* lanarekin; 12 eta 18 urte artekoetan Amaia Arraztoa iruritarrak *Euskaldunen hizkuntza* idazlanarekin eta helduetan Ainara Arizmendi gartzaindarraren lana izan da saritua. Ondotik, bertso saioa eskaini zuten Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariek, Fernando Anbustegi gai-jartzaile zutela.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dituzte ohar baten bidez: «horrelako egun politean gurekin parte hartu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizue Baztandarren Biltzarrak, Dorrea Elkarteak eta Baztango Kultura Batzordeak. Ikusleei ez ezik, gurekin elkarlanean aritu diren Laxoa Elkarteari, Iruritako dantzariei, Jo ala Jo taldeari eta Jauregiko Jose Mariri gure eskerrik beroenak».





UTZITAKO ARGAZKIA

Iruritako dantzarien saioa goizean eta Egaña eta Alberdiren bertso saioa arratsaldean.















# BAZTAN

**GIZARTEA** ➔ ELKARRETARATZEA EGINEZ

## Lan hitzarmen berria eskatu dute Elizondoko erresidentziako langileek

### Enpresaren zuzendaritzak ez zuela negoziatu nahi salatu zuten




ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL
Francisci Joaquin de Iriarte Zahar Etxeko langileak, erresidentziaren aitzinean.

**TTIPI-TTAPA**

Elizondoko Francisco Joaquin de Iriarte Zahar Etxeko langileak protesta elkarretaratzea egin zuten apirilaren 16an, lan hitzarmena berritzeko negoziatzen hastea eskatuz erresidentzia kudeatzen duen Idea e Innovación enpresako zuzendaritzari. Langileen ustez, nahitaezkoa da lan hitzarmena berritzeko solasean hastea, «gainerakoan, uztailaren 7an langileak inolako hitzarmenik gabe gelditzen ahal garelako».

Lan erreformak urtebeteko epea ematen du hitzarmena negoziatzeko eta hori egiten ez bada, estatu arlokoa jarriko litzateke indarrean, «dexentez murritzagoa». LAB sindikatutik jakinarazi dutenez, enpresako zuzendaritzak hasieratik uko egin dio negoziazioak hasteko papera sinatzeari, langileek soldaten jautsiera onartzen ez badute. Zuzendaritzaren erranetan, «gaur egungo soldaten kostuarekin erresidentzia ez da bideragarria».

Langileek ez dute onartzen zuzendaritzak dioena, «Zahar Etxea ehun urtez bideragarria izan baita eta gaur egun ere halaxe da. Gainera, oinarrizko lana egiten du Baztanen eta hori ezin daiteke egun batean desagertarazi”.

Lan hitzarmena berdinetik berdinera negoziatzeko aukera eskatzen dute langileek, aitzinetik baldintzarik jarri gabe, eta «ez gaude gure lan eskubideetan murrizketa gehiago onartzeko prest». 2010ean zentroaren kudeaketa pribatizatu egin zen eta egoera hau horren ondorio dela uste dute langileek.

**GIZARTEA** ➔ UDAL GOBERNU TALDEAREN PRENTSA OHARRA

## Argazkiak kendu arren seme kuttun direnak kuttun izaten segitzen dutela dio Balleko Etxeak

### Udal barneko paisaia berdintasun balioekin antolatu nahi duela dio

**TTIPI-TTAPA**

Baztango seme kuttun direnak seme kuttun izaten jarraitzen dute. Hala dio Udal gobernuak Balleko Etxean paratuak zeuden seme kuttunen argazkiak kentzearen harira, Diario de Noticiasek «bertze behin asmo txarrez edo gauzak erdizka emanez» argitaratutako informazioen eta iritziei buruz.

Argazkiak kentzerakoan udalaren eta alkatetzaren helburua «udal barneko paisaia berrantolatzea bertzerik ez da izan, udalaren barneko paisaia herritarren arteko berdintasun eta parekidetasun balioekin sinbolikoki antolatuz, euskara ordenantza betez eta munduko herrien arteko errespetua bulkatuz». Horren ondorioz, adibidez, Amerikako konkistaren 500. urteurrenaren goraza - rrea zen margolana kendu zen, baita erdera hutsean zeuden apaingarriak ere. Udal gobernuak dioenez, «horrek bistan denez ez du inondik ere pertsona desberdinen ibilbide pertsonala ezta herriari egindako ekarpena guttiesten». Hala, Izetaren eta Erasoren kasuetan udalak nahiago du «pertsona hauek euskarari eta kulturari egindako ekarpenak adibidez euskalgintzan eta kulturgintzan sakonduz eta horietan pausu berriak emanez oroitu, hau da, argazkietatik harago beren egiazko ekarpenari segida emanez».

Gainerakoan kazetariak eta UPN-k erraten duenaren kontra, udalak dio ez dagoela argazkiak jartzeko osoko bilkurako akordiorik. 2001ean hartutako akordioan seme kuttunen oroimen gisa detaile bat jartzea erabaki zen, zehaztasunik gabe. «Seme kuttuna izendatzeko akordio orokorrak daude, bertzerik ez, eta akordio horietako batzuk erakusten dutenez momentu bakoitzeko udal hautetsien artean pertsona jakin batzuk goratzeko zalantzak ez ziren gutti», dio udalaren oharrak.

Bertzalde, Lekarozko monolitoaren harira «birziklatutako jatorri frankistako ikurra da, udalbaimenik gabe CEINek bere aldetik eta bere ardurapean jartzea erabaki duena». Lekarozko campusa eremu publiko bat da eta bertan zernahi egin nahi dela ohiko prozedurak eta arauak betez egin behar dira. «Baztandar guztiak berdinak bagara, horrelako jokamodurik ez da onartzen ahal», dio udalaren prentsa oharrak.

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# BAZTAN

**GIZARTEA ➜** MAIATZAREN 18AN

## Euskal Herria Palestina Eguna ospatuko da Elizondon

Egunotan erakusketak, unitate didaktikoak eta bertze ekitaldiak ere egiten ari dira

**TTIPI-TTAPA**

«Palestinarrei elkartasuna adierazteko, Israelek Nazioarteko Legedia bete eta Giza Eskubideak Errespetatu ditzan» Euskal Herria Palestina Eguna ospatuko da maiatzaren 18an, Elizondon. Horrekin lotuta, Lesaka, Bera, Elizondo, Doneztebe eta Iruritan erakusketak eta pelikulak eskaintzen ari dira.

Palestinar marrazkilarien irudiak ikusgai egonen dira Elizondon maiatzaren 1etik 17ra. Gaiarekin lotutako "Palestinako historiaren sintesia" Unitate Didaktikoa ere eskainiko dute Iruritan maiatzaren 1etik 12ra. Erakusketez gain, palestinar zine dokumental zikloa ere egin da Lesaka, Elizondo, Bera eta Donezteben.

Maiatzaren 2an, *Roadmap to Apartheid* dokumentala eskainiko da 20:00etan Erratzun. Maiatzaren 14an, *Porrotx Palestinaz* emanaldia izanen da 17:30ean Iruritan eta maiatzaren 15ean, *Preso politikoak Palestinan eta Euskal Herrian* solasaldia izanen da 20:00etan Elizondon.

Maiatzaren 18ko EHPalestina Egunari dagokionez, egitarau aski zabala izanen du. Goizeko 10:00etan dianak joko dituzte karriketan barna. Gorapeetan mural bat margotuko da eta erakusketa zabalduko da plazan. 10:30ean, James Petras eta Adel Abou Salem-ek "Inperialismoa, Sionismoa eta Palestinaren urraketa" solasaldia eskainiko dute Arizkunenean. 11:00etan joaldunekin kalejira eginen da fanfarreak alaiturik. Check point israeldarra ere izanen da, haurren jokoak, kometa eta txalaparta tailerrak eta janari arabiarra plazan. Eguerdian, elkarretaratze bateratua deitu dute Sareak "Preso palestinarrak etxera" eta Herrirak "Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira" goiburupean. 12:30ean eginen da Euskal Herria-Palestina ekitaldi nagusia plazan. 13:00etan dantza palestinarrak eskainiko da. 14:00etan zikiro jatea eskainiko da Merkatuko Plazan eta menu begetala nahiago duenak horretarako aukera ere izanen du. Fermin Balenziak kantaldia eskainiko du. 18:00etan Palestinaren aldeko Ginkana eginen da, Elkartasuna eta Boikota izenburupean. 22:00etan kontzertuak izanen dira plazan.



ARGAZKIA: JOSU INTZIARTE

### Komunikabideen aldeko kontzertu bikaina

Krisi egoera orokorrean sartuta eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik gabe, han eta hemen dirua lortu beharrean daude eskualdeko euskarazko komunikabideak ere. Honela, apirilaren 13an, musika kontzertu handia antolatu zuten Berriak, Ttipi-Ttapa aldizkariak, Xaloa Telebistak, Xorroxin Irratiak eta Baztango euskalgintzak, Lur aretoaren laguntzarekin. Elizondoko Lur aretoan jendetza bildu zen eta gozatu ederra hartu zuen Pettik, Anje Duhaldek, Erramun Martikorena eta Joxe Anjelek eta Amaia Zubiriak eta Edorta hedatu zuten doinu zirraragarriekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Maider Atxa almandoztarraren proiektua Perun

Maider Atxa Agerre, 26 urteko almandoztarra Peruko Machu Picchu inguruko Alcomayo herri ttikian ibili da. Turismoa? Ez. Maiderrek Bide, Portu eta Kanaletako injenieritza karrera egin du Burgosko Unibertsitatean, baina titulua lortzeko proiektu bat aurkeztu behar zuen. Hortaz, Peruko herri horretara joan zen eta proiektu eder bat egin zuen, herrira ura nola eraman zitekeen azalduz. Egitasmoa ontzat eman zioten eta dagoeneko errealitate ere bihurtu da, etxe guzietara ailegatu baita ura. Denbora berean, laguntza berezi bat ere eman nahi izan zion Alcomayoko eskolari eta argazkian ageri den bezala, eskola materiala, jostailuak eta bertzelako materiala eraman zuen. Zorionak.

Nafarroako Mendialdeko garapena da gure apustua

# Herrian bizi, herrian erosi

Krisiak, kontsumo ohitura berriek edota saltoki handien itzalak borroka etengabean bizitzera behartzen die herrietako merkatariei. Ez dute etsi eta elkarteetan bat eginik, egoerari buelta emateko irtenbideen bila dabiltza. Imajinazioa martxan jarri eta mota guztietako ekimenak antolatzen dituzte orain arteko bezeroei eutsi eta berriak erakartzeko asmoz. **Cederna Garalur,** Nafarroako Mendialdeko Garapen elkartea, ere alboan dute zeregin horretan. Denon artean herriak bizirik mantentzeko!

## Mamen GOÑI
Baztango Bertan elkartea



### «Kanpokoari balio handia ematen zaio, bertan duguna ahaztuta»

Herrietako komertzioa «erosotasunaren, hurbiltasunaren eta konfidantzaren sinonimoa» dela dio eta hiru ezaugarri horiexek dira, eguneroko borrokan dituzten armak. «Pribilegiatu batzuk garela ohartu eta herrietan duguna mantentzen saiatu behar dugula» uste du, baina bere hitzetan, «kanpokoari balio handia ematen zaio, bertan duguna ahaztuta». Dituzten bezeroei eutsi eta berriak erakartzeko makina bat ekimen egiten dituzte «*Gastatu fite* kanpainan adibidez, 2000 euro zozketatzen ditugu gure erosleen artean». Hori dela bidea uste du, etorkizunik izatekotan, «herrian bizi eta herriari bizia emateko erabakia hartzen duten pertsonak behar baitira».

## Mikel ZABALETA
Leitzako Kaxkabeltza elk.



### «Herriko zerbitzuak kontsumitzeak, herri guztia aberasten du»

Herrian betetzen duten «lekua eta papera, zein den erakusteko ahalegina egiten» ari direla dio. Biziraupen borroka horretan, Cederna Garalurren laguntza jasotzen dutela aipatzen du «informazio aunitz eskaini digute, ditugun baliabideei etekina ateratzeko. Ikastaroen bidez eskaparateak nola txukundu, eskaintzak nola egin... erakutsi digute». Leitzan antolatzen diren ekitaldi kultural eta sozialen babesleak ere badira, «herriarentzat lanean ari garelako eta bidea denok batera egin behar dugulako». Denek ulertzea nahiko lukete «herrian kontsumitzeak, herri guztia aberasten duela, lanpostuak mantendu, berriak sortu eta irabaziak herrian gelditzen direlako».

## Rosa LASAGA
Lesakako zerbitzu elk.



### «Bezeroak erakartzeko hemen gaudela adierazi beharra dugu»

Merkatariek «hurbileko zerbitzua, eskaintzak, kanpoan topatuko ez duten tratua» eskaini behar dutela dio. Horretaz gain, arreta deitzeko ekimenak prestatzea ere beharrezkoa iruditzen zaio, «bezeroak erakartzeko hemen gaudela adierazi beharra dugu». Helburu horrekin ekimen ugari antolatuko dituzte datozen hilabeteetan «balkoien lehiaketa, azokak eta tonbola prestatu ditugu, merkatari edo zerbitzu bakoitzak bere aldetik egiten dituen saiakera ttikiez gain». Herriko beste elkarteekin ere kontaktuan jarri dira «elkarrekin herriari aterabidea emateko asmotan». Merkatariek argi duten formula zabaldu nahi dute «komertzio gehiagok bizi gehiago emanen dio herriari».

## Natalia REKARTE
Doneztebarrak elkartea



### «Ezin dugu eskuak gurutzatuta gelditu, herritarrak animatu behar ditugu»

Doneztebeko merkatarien hitzetan, «nahiz eta salmentak jeitsi eta egoera zaila izan, herritarrak pixka bat animatzeko ekintzak egin behar dira, mezu positiboak zabaldu behar dira». Merkatarien inplikazio handia eskatzen duten ekimenak izaten dira baina, «ezin dugu eskuak gurutzatuta gelditu, gauzak egin behar dira, kanpora atera eta bizia eman herriari eta jendeari». Asmo horrekin, apaindu zituzten erakuslehioak San Valentin egunaren aitzakian. Hurrengo kanpaina udaberriko azokaren baitan eginen dute, «200 euroko lau erosketa txartel zozketatuko dituzte eta haurrendako ekitaldiak» prestatu dituzte. Guztia «jendeari ikustarazteko herrian bertan aukera handia dagoela».

## Fran AGARA
Berako Larun-Haizpe elk.



### «Bezeroak dendara sartzeko erakarri egin behar ditugu»

Jendea dendetara sartzeko moduak bilatu behar dituztela dio «erakarri egin behar ditugu, sar ditezela, erabakiko dute gero erosi edo ez erosi». Izan ere, «horixe da lehenego arazoa, ez badira animatzen sartzerat, ez dute ikusten zein aukera diren». Herrian kontsumituta «merkatariek bakarrik ez, herriak irabazten duela» azaltzen du. Bezeroak saritzeko antolatzen dituzte zozketak, ostatuetan pintxo lehiaketa, tonbola...eta beste hainbat ekimen. Eskualdeko merkatari elkarteek ere bat egin dute «batera indar gehiago eginen dugulakoan». Merkatariek bakarka ezin dute egoera aldatu, ohartarazten du «herritarren laguntza eta erosketarik gabe ezin dugu aurrera egin».

**GARAPEN AGENTEAK**

**Arantxa Arregi**, 606 43 13 57 / bidasoa@cederna.es • **Izaskun Abril**, 606 40 86 13 / baztan@cederna.es • **Elena Irigoien**, 617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

**Cederna Garalur** Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B • Ordutegia: 09:00 / 16:00 • 948 62 51 22 • bidasoa.admon@cederna.es

Nafarroako Gobernua

cederna garalur

Fondo Europeo de Desarrollo Rural: Europa invierte en zonas rurales / Landa Garapenerako europako nekazaritza funtsa: Europa landa eremuetan inbertitzen

LGP 2007-2013 (LEADERko 4. ardatza) programako funtsak, Europar Batasunaren finantzazioarekin (% 55), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# ZUGARRAMURDI

**KIROLA** ➜ APIRILAREN 13AN HASI ZEN

## Hamabi bikote ari dira pala txapelketan

Lau neska baizik ez dira animatu aurten parte hartzera

**Margari eta Koro**

Apirilaren 13an hasi ziren pala-pilotako txapelketako lehenbiziko partiduak. Denetara hamabi bikotek eman dute izena, eta antolatzaileak kontent dira, bainan erronka nesken parte hartzea zen, eta hortan ez da parte hartze haundirik lortu, lau neska baizik ez baitire animatu.

Hala ere, gan den urtekoa kontutan hartuz (neska bat finalera ailegatu zela) neska gutti izanda ere, txapelketan urrun ailegatuko direla diote.

### Malobra arrakastatsua

Gan den apirilaren 20ean auzolan bat egin zen (“malobra” deitzen zaio hemen).

Aspaldi da udalak ez zuela halako lanetara deitzen, seguraski hogeita hamar bat urte edo, baina arrakastatsua izan da. Hogei lagun bildu ziren eta lan polita egin dute Madaria eta mendiko bideetan. Seguru 30 urte baino lehen eginen dela hurrengoa!




UTZITAKO ARGAZKIA

**Turismo erakubde eta bulegoen topaketa eginzen**

Sorginen Museoak eta Sarako Turismo bulegoak antolaturik, 30 lagun bildu ziren apirilaren 18an. Helburua Nafarroako ipar aldeko eta Pirineoaren bertze aldeko turismo erakunde eta bulegoen arteko topaketa bat egitea izan da. Egunean zehar elkar ezagutu ziren, informazio trukaketak egin zituzten, eta elkarlanean aritzeko aukerak bilatu.

# URDAZUBI

**GIZARTEA** ➜ URRIAZ GEROZTIK ITXIA ZEGOEN

## Monastegiko elizako berritze lanak inauguratu dituzte

240.000 euroko aurrekontua zuten lanek

**TTIPI-TTAPA**

Monastegiko San Salvador elizan egindako berrikuntzen inaugurazioa egin zen apirilaren 20an. Iruñeko eta Tuterako Artzapezpiku den Francisco Pérez eta herriko agintariak izan ziren ekitaldian.

Barreneko berrikuntzak joan den urteko uztailean hasi ziren eta urriaz geroztik eliza itxita egon da inaugurazio eguna arte.

Berrikuntzak ugari izan dira: koadroak eta irudiak zaharberritu dira, elizaren erretaulak ere, bi gehituz, zorua berritu da, berogailu sistema aldatu da, aldare berri bat eta bukatzeko ganga eta hormak margotu dira hasieratik zutabeak zuten motibo geometrikoak berreskuratuz.

Aurrekontua 240.000 eurokoa izan da, hemendik 100.000 euro Herriko Etxeak ordaindu du, 115.000 euro inguru herriko bizilagunek jarri dute eta gainerakoa parrokiak jarri du.

Orain egindako berrikuntzekin eta orain dela urte batzu kanpoko hormetan eta teilatuan egin ziren berrikuntzekin batera eliza guztiz zaharberritu dela erraten ahal da.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Herritar ainitz bildu zen apirilaren 20an, eliza berrituaren inaugurazio meza aditzera.

# SENPERE

**KIROLA** ➜ PILOTA

# Buruz buruko finala irabazirik lehen mailan ariko da Pantxo Valencia pilotaria

40-28 irabazi zion Baionako finalean Gabi Ibarburu azkaindarrari

**Franck DOLOSOR**

40 eta 28 nagusitu zitzaion Pantxo Valencia herritarra Gabi Ibarburu azkaindarrari joan den apirilaren 21ean Baionako Moderne trinketean jokatu zen Frantziako txapelketako Nazional B mailako buruz buruko finalean. 30 urteko senpertarrak presio haundia jasan zuen partidaren hastapenean eta gauzak biziki neke zitzaizkion. Bere ustez, ez zen baitezpada partida ederra izan Ibarburuk ez baitzuen egunik onena. Valenciak nahiago izan zuen Larralderen kontra jokatu eta irabazi zuen finalerdia. Dena den, finala irabazi eta, gaitzeko besta ospatu zuten Pantxo Valenciak eta bere lagunek Baionan lehenik eta gero Eskola ostatuan Ibarrunen. Pantxo Valencia 7 urtetan hasi zen pilotan Azkaineko eskolan Ignace Berasategirekin eta ondotik Senperen aritu da Xan Noblia eta Jean Ithourriarekin. Gaurko egunean Paxkal Haroçarenerekin entrenatzen eta irabazten ditu sariak.

## Naia Lacroix libro

Senpertar gaztea aske utzi zuten apirilaren 23an urte bat pasa preso egon ondoan. 2012ko otsailean atxilotu zuten Senperen bere etxean udako etxe baten kontrako atentatu saiakerarekin zerikusia zuelakoan. Naiaren aldeko mobilizazio jendetsuak egin dira azken hilabeteetan bere libratzea eskatzeko eta elkartasuna erakusteko bereziki gose greba egin zuelarik. Lagunek eta familiak ongi etorri beroa egin diote Donibane Lohizuneko trein geltokian eta Senperen.



UTZITAKO ARGAZKIAR

SPUC batasunak 40 urte bete ditu. Gaur egun 600 kide biltzen ditu.

## SPUC batasunaren urtemuga

Oroitzapenen aipamenik ez zen falta izan berriki herriko kirolariek ospatu duten SPUC batasunaren borrogoigarren bestan. Ospakizun hau 1973an sortu zen gure errugbi jokalariak Frantziako txapelketako final laurdenetaraino heldu zirelarik. Gaurko egunean 600 kide biltzen ditu elkarte hunek, errugbian, pilotan, kayak, oinezko lasterketan, eskubaloian eta zango baloian.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

## Hatsaren hamabosgarren bilduma

Hatsaren olerki bildumaren hamabortzgarren edizioa aurkeztu du berriki Hatsa elkarte kulturalak. Apirilaren 7an, 50 olerkizale bildu ziren Larraldean liburu berria ezagutzeko, elgarrekin bazkaltzeko eta ondotik olerkiak elgarrekin irakurtzeko. “Hatsaren olerki bustiak 2013” bideoa ikusteko ere parada izan zuten. Aipagarria da 15 urtez kasik bi mila euskal olerkarik parte hartu dutela ekimen hortan Auxtin Zamoraren inguruan. Aurten argitaratu den liburuan izen guzi horiek agertzen dira: 300 idazle heldu eta 1 600 haur eta gaztetxo. Liburua elkarteari galdetu behar zaio ez baita liburudendetan saltzen: *hatsaelkartea@aol.com*

ttipi-ttapa
948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net
Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...
inprimitzen ditugu

# SARA

**KULTURA** ➜ MAIATZAREN 16AN

## Urdazuriko guduen bigarren mendeburua Larrunen gogoratuko da

Jakintza elkarteak erakusketa bat antolatuko du 10:30etik 15:00etara

**Joana GUERENDIAIN**

Heldu den maiatzaren 16 n, Larrun puntan, Urdazuriko guduen bigarren mendeburuaren karietara Jakintza elkarteak erakusketa bat antolatzen du. Bertzeak bertze aurkeztuko dituzte Napoleonen tropen estrategiak, garaiko objektuak eta armak, pertsonaiak. Ekintza hau goizeko 10:30etik arratsaldeko 3ak arte iraganen da. Lekuak erreserbatu behar dira Larrunera deituz: 05.59.54.20.26



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN
Olhain ikastolako neska-mutikoak herriko mendien historiari buruzko ikusgarrian.

### Urrats gaua

Usaian bezala, Herri Urrats bezperan, Sarako gaztetxeak urrats gaua antolatzen du. Aurten kontzertuak plazan eginen dira eta sartzea urririk izanen da. Talde gonbidatuak Tommy Gun, Goienentxe anaiak (hip-hop/rap) eta Iruñeko Bad Sound Sistem (hip-hop/reggae) dira.

### Olhain ikastolako haurren ikusgarria

Apirilaren 20an, Omordiako gelan Sarako ikastolako haurrek urte bukaerako ikusgarria aurkeztu dute, “Sarako mendiak urteetan zehar” zituzten gaitzat. Ikusleak tele emankizun baten aurrean bezala ziren, bi aurkezlek mendietan pasa ziren gertakariei buruzko erreportaiak aurkezten zituzten: aurrehistoria Axurian, Erromatarrak Ibantelin, Frantses eta Ingeles tropak Zuhalmendin eta Larrun gaur egun. Zinez ikusgarri polita izan da.

Bertzalde ikastolaren besta Mendekoste asteburuan ospatuko da. Goiz bukaeran haurren bozek Sarako plaza animatuko dute, ondotik sagarno kupelak idekiko dira eta sagarnotegi bazkaria zerbitzatua izanen da. Arratsaldean haurrak jolasten ahalko dira joko puzagarrietan. Bazkariaren txartela 22 eurotan salgai izanen da.

### Urtxintxak finalerdietan

Sarako urtxintxek beren multzoko azken matxa jokatu dute apirilaren 14ean Saran Bokaleren kontra eta irabazi egin dute 11-14. Erdi finalendako kalifikatuak dira.






## EZKONTZAK

**Jon Uitzi Lujanbio** eta **Ziortza Zabala Atxurra,** Goizueta eta Lekeitiokoa, apirilaren 12an Goizuetan.
**Pattin Sansiñena Iparragirre** eta **Karmele Pikabea Baleztena,** Etxalar eta Saldiaskoa, apirilaren 20an Etxalarren.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




## SORTZEAK

**Andoni Jouve Delpeche**, Sarakoa, apirilaren 6an.
**Nahia Goenaga Goikoetxea,** Goizuetakoa, martxoaren 25ean.
**Garazi Lizarraga Mendia,** Leitzakoa, apirilaren 2an.
**Julen Etxeberria Elbira,** Lesakakoa, apirilaren 3an.
**Maren Bereau Arribillaga,** Lesakakoa, apirilaren 4an.
**Aroa Danborinea Ibarra,** Etxalarkoa, apirilaren 4an.
**Yeray Bazterrika Antxordoki,** Igantzikoa, apirilaren 13an.
**Irati Irazoki Almandoz,** Berakoa, apirilaren 14an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




## HERIOTZAK

**Fermin Otxandorena Petrikorena,** Lakarozkoa, apirilaren 9an, 97 urte.
**Juana Andueza Telletxea,** Lesakakoa, apirilaren 11n, 95 urte.
**Juan Ramos Vega,** Elbetekoa, apirilaren 16an, 88 urte.
**Jose Gabriel Ainziburu Urrutia,** Arizkungoa, apirilaren 16an, 79 urte.
**Adolfo Campo Diez,** Lesakakoa, apirilaren 19an, 83 urte.



**Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA**
Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an
**VII. URTEURRENA**

*Zu joan zinen momentutik,*
*gure bihotzek ez dute bakerik;*
*ez dago denboran atzera joaterik,*
*ezta ere zuri gehiago*
*ikusteko aukerarik;*
*Denbora pasatuta ere,*
*gure artean zaude bizirik,*
*ez baitago zeruan guretako*
*zu bezalako izarrik.*

**ZURE ETXEKOAK**



**Martin**
**BELARRA AROZAMENA**
2011ko apirilaren 21ean hil zen
**II. URTEURRENA**

*Ostatu bazterretan jendeak*
*gustora barrez alaitsu*
*jartzeko erreztasun horrekin*
*gogoratu nahi zaitugu.*
*Familikoak eta lagunak*
*hutsune handia dugu*
*gure Martintxo zendu zenetik*
*bi urte joan zaizkigu.*
(Doinua: Loreak udan intza bezala)

**ZURE FAMILIA**



**Manuel**
**BAZTERRIKA ELIZALDE**
Ituren 12.06.1927/13.05.2012
84 urte zituela
**I. URTEURRENA**

*Maiatzaren hamahirua, urte bat pasa da jada*
*hilabetez hilabete, zuretaz oroitu gara*
*eta zu zauden lekutik, gu begira beharbada*
*billobak eta amatxi, semeak eta alaba*
*luze joan da urtea, bai egun eta bai gaba*
*oraindik gogoratuaz, zure irrifar algara*
*gaur urte baten ondoren, erran nahi giñuke ara*
*gure bihotzetan beti, atautxi egonen zara.*

**ZURE FAMILIA**

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

**SKEET OLINPIKOA** ➜ ESPAINIAKO ERREGEAREN KOPA ETA NAFARROAKO TXAPELKETA IRABAZI DITU

# Itsaso Fagoaga lesakarra berriz ere garaipenaren bidean

## Maiatzaren 11 eta 12ko asteburuan Espainiako txapelketa jokatuko du

**TTIPI-TTAPA**

Bertze urte batez Nafarroako Skeet Olinpiko txapelketa irabazi du Itsaso Fagoaga lesakarrak. Txapelketaren lehenbiziko zatia Elizondon jokatu zen martxoan eta bigarrena apirilaren 20an Valdorban. Itsaso txapeldun izan zen eta Antonio Javier Fagoaga aita azpitxapeldun.

Aitzinetik, Espainiako Erregearen Kopa ere irabazi zuen apirilaren 6 eta 7an Pinton (Madril). Skeet Olinpikoko nazioarteko txapelketetan izaten ziren emaitza bikainak ikusirik, modalitatea zailtzeko aldaketa batzuk egin dituzte eta oraindik ere adaptazio prozesuan dabiltza tiralariak. Horregatik eta haize zakarrarengatik, ez zituen emaitza onegiak lortu, baina halere txapeldun izatea lortu zuen Itsaso Fagoagak. Fagoagak aipatu digunez, «pozik nago egindako emaitzarekin, aldaketak eman direnetik lehenengo txapelketa izan delako».

Orain entrenatzen segituko du, maiatzaren 11 eta 12ko asteburuan Espainiako txapelketa jokoan izanen baitu Granadan. Lan kontuak medio, heldu den urtean Ingalaterrara joanen da bizitzera Itsaso Fagoaga, baina txapelketekin segitzeko intentzioa du: «Eskopeta harat eramango dut bertan entrenatzeko eta txapelketetarako etorriko naiz», dio.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Erregearen Kopa eta Nafarroako txapelketa irabazi ditu lesakarrak. Orain Espainiako txapelketa jokatuko du.

**SOKATIRA**

## Nafarroako lauko txapelketako saioa larunbatean Amaiurren

**TTIPI-TTAPA**

Apirilaren 28an hasi zen Nafarroako goma gaineko 4x4 sokatira txapelketa. Gizonezkoen 320 eta 300 kiloko kategorian bina talde atera ditu Amaiurrek eta hain zuzen, txapelketako bigarren saioa Amaiurko pilotalekuan jokatuko da maiatzaren 11n, 18:00etan. 320 kiloko bigarren jardunaldia jokatuko da eta ondoren, lehen bi sailkatuen arteko finala. Maiatzaren 19an Iruñean eta 25ean Berriozarren 300 kiloko bi jardunaldiak jokatuko dira. Gizonezko helduez gain, emakumezkoak 260 kiloko kategorian eta kadeteak 290 kilokoan ere ari dira txapelketan, baina eskualdeko ordezkaritzarik gabe.

**KENPO** ➜ APIRILAREN 13AN GALIZAN

# Zilarrezko domina lortu du Zaira Latasak Espainiako txapelketan

## Borroka jarraia txapelketan bigarren izan zen Elizondoko kenshia

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako ordezkaritzak lau domina eskuratu zituen apirilaren 13an Villagarcia de Arousa hirian (Pontevedra, Galiza) jokatutako Espainiako kenpo txapelketan.

Elizondoko Zaira Latasak zilarrezko domina lortu zuen gerriko beltza eta marroia zuten kenshiei zuzendutako *Borroka jarraia* txapelketan. Berekin batera, irundarrak izan arren Nafarroan federatuak dauden Maria Rekaldek urrezko domina lortu zuen (kata armekin) eta Ainhoa Mancerak urrezko (borroka puntuan) eta brontzezko domina (defentsa pertsonaleko teknikak) bana.

Zaira Latasa ez zen eskualdeko ordezkari bakarra izan Espainiako txapelketan, Mikel Vaquero elizondarra ere Galizara joan baitzen, baina ez zuen dominarik lortu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zaira Latasa elizondarra, ezkerretik hasita lehenbizikoa, Espainiako txapelketan lortutako dominarekin.

**LASTERKETA ➜** BEDERATZIGARREN EDIZIOA BURUTU ZEN APIRILAREN 14AN

# Zagok bosgarren aldiz irabazi du Berako Mendi Maratoi Erdia

## Oihana Kortazar nagusitu zen emakumeen artean

**TTIPI-TTAPA**

Biarnoko Didier Zago, 1:40:48ko denborarekin eta Oihana Kortazar 2:02:43koarekin garaile izan ziren apirilaren 14an Beran jokatu zen Berako IX mendi maratoi erdian. Zago arazorik gabe nagusitu zitzaien gibeletik zituen Oier Ariznabarreta eta Aritz Egeari, Larun gainetik igarotzen zen 21 kilometroko ibilbide gogorrean.

Aurtengoan ezin izan zuen Zagok bere denborarik hoberena egin, 2011n egindako 1:38:11tik urrun ibili da. «Bero handia egiten zuen eta ezinezkoa izan da eta mendian haize aunitz zebilen» aipatu zuen Biarnoko korrikalariak Berako lasterketa bosgarren aldiz segidan irabazi ondotik. Ibardineko tarteko helmugako saria, ordea, eskuratu zuen.

Emakumezkoetan, Elgetako Oihana Kortazar izan zen lehena eta markarik onena ezarri zuen, aitzinekoa kasik 2 minututan hobetuz (2:02:43). «Niri beroak mesede egiten dit, ura edanez moldatzen da hori», zioen gustura emakume irabazleak, errekor berria egin eta gero. Aitziber Ibarbia zizurkildarra bigarren izan zen (2:04:35) eta Izaskun Zubizarreta donostiarra hirugarren (2:07:10).

500tik goiti izan ziren parteartzaileak eta hauetatik 484 iritsi ziren helmugara, Nafarroako koparen lehen froga zen maratoi erdi honetan. Jende aunitz hurbildu zen karrera ikustera, eguraldi ederra lagun.






DATUA

**484**
**KORRIKALARIK**
bukatu zuten lasterketa.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mendi Maratoi Erdiko podiumean, lehenbiziko emakume eta gizasemeak. Erdian, Zago helmugaratzen eta beheitian, Angeltxo Aranibar beratarra, eskualdeko bizkorrena.

| ESKUALDEKO KORRIKALARIAK |
|---|
| 27 Angeltxo Aranibar-Bera |
| 57 Patxi Pikabea-Bera |
| 61 Philippe Vacquie-Sara |
| 67 Patxi Vila-Bera |
| 78 Julen Lizarraga-Leitza |
| 119 R.Irubetagoiena-Senpere |
| 121 Juan Luis Irazoki-Bera |
| 134 Joseba Petrirena-Bera |
| 137 Iñaki Larrañaga-Bera |
| 138 Igor Agesta-Doneztebe |
| 143 Josema Huizi-Bera |
| 158 Eric Vignolle-Sara |
| 160 J.Mikelperizena-Bera |
| 163 Jexux Elizalde-Baztan |
| 180 P. St Martin-Senpere |
| 182 Mikel Altadill-Leitza |
| 185 Xabier Etxegarai-Lesaka |
| 187 Gwendal Larque-Bera |
| 188 Julen Errandonea-Bera |
| 197 Imanol Lukanbio-Arantza |
| 200 Haritz Gaztelu-Baztan |
| 209 Gorka Bidegain-Donezt. |
| 216 Cesar Sarratea-Baztan |
| 217 Beñat Sein-Senpere |
| 218 Xanti Dendarieta-Baztan |
| 221 JM Goienetxe-Sara |
| 226 Xabi Maritxalar-Lesaka |
| 237 Txus Unsion-Bera |
| 248 JM Ugartemendia-Leitza |
| 255 Fco A. Mascaros-Zugar. |
| 257 Xanti Lertxundi-Baztan |
| 262 Julen Pikabea-Bera |
| 267 Inaxio Agara-Bera |
| 270 Mikel Inda-Bera |
| 274 Eric Etxegarai-Sara |
| 275 Julen Oskoz-Arantza |
| 283 Frederic Fattah-Sara |
| 284 Sergio Morete-Bera |
| 286 X. Manterola-Sunbilla |
| 295 Asier Etxeberria-Lesaka |
| 297 Irene Almandoz-Bera |
| 299 Gerard Sein-Senpere |
| 305 J.Iparragirre-Arantza |
| 306 Joseba Garcia-Sunbilla |
| 313 JP Amorena-Sara |
| 335 Iban Etxarte-Baztan |
| 343 Xanti Susperregi-Bera |
| 345 Pantxo Ibarra-Sara |
| 350 Manolo Gouraud-Bera |
| 354 JA Apeztegia-Bera |
| 358 Andoni Lasaga-Etxalar |
| 359 Asier Irazoki-Bera |
| 368 T. Jauregiberri-Senpere |
| 369 Guillermo Etxenike-Baztan |
| 392 Rafa Alzate-Bera |
| 393 Joseba Goia-Bera |
| 397 Aitor Huizi-Leitza |
| 407 Simon Gullossou-Sara |
| 412 Patxi Ariztia-Bera |
| 414 Mikel Azkarraga-Baztan |
| 421 Mathieu Garat-Sara |
| 432 Xabier Irazoki-Bera |
| 440 Tobi Ruiz-Bera |
| 441 Eduardo Etxebeste-Bera |
| 444 Ch. Ozkoidi-Senpere |
| 454 Josune Iparragirre-Ezkurra |
| 472 Andoni Irigoien-Baztan |

ttipi-ttapa | 589 zk.
2013.05.02

# maiatzak 2 - 16

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.net** edo **948 63 54 58**

## Bestak



URDAZUBI-IRURITA | 2013.05

**Salbatore bestekin abiatuko da eskualdeko besta zirimola**

Kostata bada ere, hasia da udaberriko eguzkia giroa goxatzen eta horrekin batera, herrietako bestak abiatu dira. Lehenbizikoak, Salbatoreak izanen dira.

## Ospakizunak



GOIZUETA | 2013.05.11

**Leitzaldeko Eskolen Topaketan egun osoko ospakizunak**

Urtero biltzen dira Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko ikasle eta gurasoak egun osoko festan. Aurten Goizuetan izanen dute ekitaldiz betetako hitzordua.

## Zinema



ERRATZU | 2013.05.02

**Palestinari buruzko dokumentala ikusgai**

EHPalestina Eguna antolatu dute maiatzaren 18an Baztanen eta hori girotzen joateko, erakusketa, solasaldi eta dokumental emanaldiak iragarri dituzte.

## Erakusketak

OIZ

**Iciar Mikelperizenaren lanak Martiornian**

Iciar Mikelperizenaren lanak ikusgai daude Martiornia landa etxean. Sarrera librea eta doan. Tel.: 639 508688 (Rakel).

SARA

**Urdazuriko guduen bigarren mendeburua**

**Maiatzaren 16an** Urdazuriko guduen bigarren mendeburuaren karietara erakusketa antolatu du Jakintza elkarteak Larrun puntan, 10:30etik 15:00etara. Erreserba: 0559542026.

ELIZONDO

**Palestinako marrazkiak**

**Maiatzaren 1etik 17ra** palestinar marrazkilarien lanak ikusgai Arizkunenean.

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Baztango Musika Eskolak 25 urte**

**Maiatzaren 5ean** akordeoi kontzertua eskainiko dute 13:30ean Mariano Izetaren plazan. 10:45ean kalejira karriketan barna, Baztango Musika Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen baitan.

BERA

**Kantabriako Abesbatzaren emanaldia**

**Maiatzaren 4an** Kantabriako San Felices de Buelnako La Encina de Mata abesbatzak emanaldia eskainiko du 20:00etan Kultur Etxean, Berako Abesbatzak antolatua.

BERA

**Musika Eskolaren kantu jaialdia**

**Maiatzaren 11n** kantu jaialdia antolatu du Musika Eskolak Altzaten.

SARA

**Urrats gaua**

**Maiatzaren 11n** Sarako Gaztetxeak Urrats Gaua antolatu du Herri Urrats bezperan. Tommy Gun, Goiene - txe Anaiak eta Band Sound Sistem. Sartzea urririk.

ZUBIETA

**Herriko Ostatuan Reggae musika**

**Maiatzaren 3an** kontzertua eskainiko du Barañaingo Soñadores Natos taldeak Herriko Ostatuan 22:00etan.

## Feriak

DONEZTEBE

**Udaberriko Feria**

**Maiatzaren 10ean** ospatuko den Udaberriko Feriaren baitan Malerrekako 7. ahari lehiaketa eginen da. Eskulangileak eta Doneztebarrak elkarteko dendak ere karrikara aterako dira. Xehetasunak 24. orrian.

ITUREN

**Artisau eta Lanbide Azoka**

**Maiatzaren 12an** ospatuko da plazan, Malerreka Trukerrekak antolatua.

## Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA

**26. Bertsopaper lehiaketa**

**Maiatzaren 17an** bukatuko da Baztan-Bidasoaldeko XXVI. Bertsopaper lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 21. orrian.

ORONOZ-MUGAIRI

**Argazki Rally digitala Felix Menaren omenez**

**Maiatzaren 5ean** antolatu du Itxusi Argazki Elkarteak. Xehetasunak 35. orrian.

## Solasaldiak

BERA

**Euskara Bortzirietan gogoeta prozesua**

**Maiatzaren 4an** *Euskara Bortzirietan* gogoeta prozesuaren bigarren saioa eginen da 10:00etatik 14:00etara Toki Ona Institutuan.

BERA

**Liburu elektronikoa eta tableta erabiltzen**

**Maiatzaren 8an** liburu elektronikoa eta tableta erabiltzen ikasteko solasaldia eskainiko da gaztelera 18:00etan herri liburutegian.

BERA

**Ander Izagirreren liburu aurkezpena**

**Maiatzaren 10ean**

PROPOSAMENA

SENPERE

**Herri Urrats Seaskaren alde**

Maiatzeko bigarren igandean Iparraldeko Ikastolen aldeko besta handia ospatuko da Senpereko aintzira inguruan, euskalzale eta bestazaleen topaleku. Hainbertze ekitaldi izaen dira gune ezberdinetan. Horretaz gain, besta bezperatik hasi nahi dutenentzat, Sarako Gaztetxeak Urrats Gaua antolatu du, ohiturari eutsiz. Sartzea urririk izanen da.



Ander Izagirrek *Plomo en los bolsillos* liburua aurkeztuko du 19:30-ean Beralandetan.

LESAKA

**Bidaziren aurkezpena**

**Maiatzaren 3an** eginen da Bidazi Kontsumo Elkartearen aurkezpena.

IGANTZI

**Bidaziren aurkezpena**

**Maiatzaren 10Ean** eginen da Bidazi Elkartearen aurkezpena.

ELIZONDO

**Preso politikoak Euskal Herrian eta Palestinan**

**Maiatzaren 15ean** *Preso politikoak Palestinan eta Euskal Herrian* solasaldia 20:00etan.

## Bestak

IRURITA

**Salbatore bestak**

**Maiatzaren 8tik 12ra** Salbatore bestak ospatuko dituzte. Xehetasunak 11. orrian.

URDAZUBI

**Salbatore bestak**

**Maiatzaren 8tik 12ra** Salbatore bestak ospatuko dituzte. Xehetasunak 12. orrian.

GOIZUETA

**Txinoko festak**

**Maiatzaren 3 eta 4an** Txino auzoko festak ospatuko dituzte. Xehetasunak 33. orrian.

## Ospakizunak

SENPERE

**Herri Urrats**

**Maiatzaren 12an** ospatuko da Seaskako ikastolen aldeko besta aintzira inguruan.

DONAMARIA-GAZTELU

**Kulturaldia**

**Maiatzaren 1etik 4ra**

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Txartel bat (des)herrira

GARAZI GOIA IMAZ

Elkar, 2013

Ihesi dabiltzanen istorioa da hau. Ibai ihesi doa, bere erabakiz. Peru, besteen erabakiz. Deserrian gurutzatzen dira biak, ezustean, aldatu nahi luketen iragan bat eta baldintzazko galderak bizi dituzten bitartean: zer gertatuko zen hegazkin haiek herria suntsitu ez balute? Zer gertatuko zen kotxea hartu ez banu?
Maitasun istorio bat, paperezko hegazkinetan bidalitako hitzak, bizitzako erabakiak, 1937ko gerrako bonba hotsak, erruarekin pozoitutako oroitzapenak, haurren negarrak, inoiz kontatu gabeko sekretuak, berridatzi ezin diren iraganeko kapituluak… Horiek guztiek osatzen dituzte istorio honetako protagonisten bizitzak, orain, herrira itzultzea beren esku dagoela badakitenean.
Ihesa, deserrotzea eta bertakotzea moduko gaiak lantzen ditu Garazi Goiak, prosa eder eta iradokitzailez idatzitako bere bigarren nobela honetan.

### Musika



Plethora

MANTISA

Promomusika, 2013

Bere lehen diskoan, Mantisakoak hardcore, rock eta punk-rockaren estiloan murgildu ziren, eta beren lan berri honetan, bertze norabide musikal bat hartu dutela erraten ahal da. Aldaketak izan dira Mantisa taldean; hain zuzen ere, teklista bat sartu da, eta horrek bertze ukitu bat eman dio taldeari. Plethora bigarren diskoak 10 abesti ditu, ardatz melodia harmonizatukoak. Erritmo landuak dituzte, eta batzuetan, sinkopatuak. Letretan, gizakiaren sentimenduak aipatzen dituzte Mantisakoek, eta beldurrari aurre egiteko egoerak (Larrialditan), etorkizunak berekin duen zalantza eta iraganeko oroitzapenak (Hondarrak), animalien sufrimendua (Arrantza txapelketa), gizabanakoaren erranahia (Plethora), eta gaur egungo gizartean gori-gorian dauden bertze gai batzuk. Azken batean, albuma lehen aldietan entzutean, harrapatu eta ezinbertzean bilduko zaitu, eta hurrengoan aditzen denean, taldearen xehetasun landuak antzematen dira.

### Internet



Argazki Elkartea
Oronoz-Mugairin

WWW.ITXUSI.COM

Baztango zenbait argazkilari biltzen dituen elkartea da Itxusi. ANFASekin eta Oronozko suhiltzaileekin elkarlanean egutegi solidarioa argitaratzeagatik ezagun egin ziren eta orain, Felix Mena zenaren omenez argazki rally digitala prestatzen ari dira. 2012ko irailaz geroztik Oronoz-Mugairin dute egoitza fisikoa, baina Interneten ere bisita egiten ahal zaie. Bertan, gaurkotasuneko albisteekin batera, elkartea zer den eta Angel eta Joxe Erregerena, Jose Javier Nosellas, Josu Intziarte eta Juan Lameirinhas bazkideen argazki galeria ederrak ikus daitezke. Facebookerako eta bertze webgune interesgarrietako loturaz gain, elkartearekin harremanean jartzeko aukera ematen dute webgunetik bertatik.

Kulturaldia antolatu du Udalak. Xehetasunak 27. orrian.

GOIZUETA

**Leitzaldeko Eskolen Topaketa**

**Maiatzaren 11n** ospatuko da eta egun osoko ekitaldiak antolatu ditu Goizuetako Guraso Elkarteak. Xehetasunak 33. orrian.

## Zinema

ERRATZU

**Palestinari buruzko dokumentala**

**Maiatzaren 2an** *Roadmap to Apartheid* dokumentala ikusgai 20:00etan. Antolatzailea: EH-Palestina sarea eta Baztango Askapena.

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleak**

**Maiatzaren 5ean** Arizkun (Ordoki)-Duterie-Dorreko borda-E-rrota-Azpilkueta-Arburu-Atxuela-Eskisaroi-Eskiz-Unboto-Bagordi-Xolardi-Apaioa-Duterie-Ordoki ibilbidea eginen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00).
**Maiatzaren 12an** Herri Urratsera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek: Amaiur-Luroko ateka-Kapera-Ainhoa-Senpere (07:00).

LESAKA

**Beti Gazteko taldea Santiago Bidean**

**Maiatzaren 4an** Naxera eta Grañon (Errioxa) arteko bidea eginen dute Beti Gazteko mendizaleek, Santiago Bidearen baitan eta **maiatzaren 5ean** Grañon eta Espinosa del Campo (Burgos) artekoa.

## ETXEBIZITZAK
### salgai

**ORONOZ-MUGAIRI**. Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milio pezeta/ 100.000 euro. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
**anzabal@anzabal.com**

**IRUN.** Etxebizitza salgai, Erromes plazan. Bi logela ditu. Eskaintza bikaina! ☎617 461649.

**DONEZTEBE.** Bi logelako etxebizitza berritua salgai. 15 m²ko trastelekuarekin. Prezioa: ☎630 160353.



**ERATSUN.** Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ELIZONDO.** Balda karrikako (Paularena) 3. zenbakian etxebizitza salgai. Eraikitako azalera 67 m², azalera erabilgarria 59,41 m². Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia eta trastelekua ditu. Mobleztatua, igogailua eta berogailuarekin. Mauricio Berekoetxea karrikan 18,75 m²ko aparkalekuko plaza barne. Prezioa: 120.000 euro. ☎652 518471/☎948 452083.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.net** edo **www.ttipi.net**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**SUNBILLA**
ERAIKIN BERRIA
Pisua • Garajea
Trastelekua
**120.000€tik hasita**
T/F: 948 10 98 18
607 94 67 85

**NARBARTE.** Pisua eta 65 m²ko bajera salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, trastelekua eta terraza oso eguzkitsua ditu. Prezioa: 20 milio pezeta, negoziagarriak dira. ☎671 953370.

## ETXEBIZITZAK
### errentan emateko

**SUNBILLA.** Pisua errentan emateko edo salgai. Bi logela, sukaldea eta egongela tximiniarekin. Dena hornitua, kalefakzio zentrala, balkoia, terraza, igogailua, garajeko marra eta bi trasteleku etxeko goiko solairuan. Kalitatezko eraikin berria eta aukera askokoa. Prezio onean. ☎628 473539.



**BERA.** Herri erdian pisua errentan ematen da. Hiru logela, sukaldea, 2 komun eta egongela ditu. Dena ekipatua eta bizi - tzeko prest. Igogailua eta berogailua ere baditu. Balkoi ederra eta eguzkitsua. ☎ 679 760510.

**DONEZTEBE.** Zazpigurutze karrikan 110 m²ko pisua errentan ematen da. Sukaldea eta egongela mobleztatuta ditu. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. Interesatuek deitu ☎615 756282.

**IRUÑEA.** 2013-2014 ikasturterako pisu bat errentan ematen da. Unibertsitate publikotik hurbil. 4 lagunentzako tokia. ☎662 376520.

**DONEZTEBE.** Pisua errentan ematen da, mobleztatua eta berogailuarekin. 3 logela, sukaldea, komuna, egongela eta bi balkoi ederrekin. Parkina bertan. ☎650 978230.

**MUGAIRI.** Apartamendu mobleztatua, berogailua eta igogailuarekin errentan emateko. Logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua ditu. Hilabetean 260 euro. ☎663 312557.

**LEITZA.** Pisua errentan ematen da herri erdian, igogailu eta guzti duena. ☎650 191983.

**SUNBILLA.** Herri erdian etxea errentan ematen da. Lau logela eta bara - tze ederrarekin. Mobleztatua . ☎948 450729.

## ETXEBIZITZAK
### errentan hartzeko

**ESKUALDEA.** Emakumezko batek etxebizitza edo pisu bat errentan hartu nahiko luke Bortziriak, Baztan edo Malerreka inguruan. ☎647 233690.

**LESAKA-BIDASOA.** Pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordain - tzeko prest. Interesatuek mesedez deitu arratsaldeko 16:00etatik aitzinera. ☎636 777478.

## LOKALAK
### errentan emateko

**ALKAIAGA.** auzoan, 70 m²ko lokala errentan ematen da. Prezio interesgarria. ☎649 161830.

## LANA
### eskariak

Emakumea eskaintzen da **adineko jendea pa-seatzera** ateratzen lan egiteko. ☎649 621603.

**ARIZKUN.** Arkitekturako ikasle bat naiz, eta asteburuetan lehen hezkuntza, DBH eta batxilergo mailako **klase partikularrak** emateko prest nago. ☎680 187344.

Neska euskalduna, **erizaintzako laguntzaile** ti-

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Apirilaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 54 € (-2,00)

**Zerri gizena**
1,377 € kiloa.

**Zerramak:**
0,870€ Kg/bizirik.



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak:** | **€/kg. Kanal** |
|---|---|
| **Extra** | 4,13 |
| **1.koa** | 3,87 |
| **2.koa** | 3,71 |
| **Urruxak:** | **€/kg. Kanal** |
| **Extra** | 4,34 |
| **1.koa** | 4,06 |
| **2.koa** | 3,92 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 150,00 (+18,00)
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 155,00
idixkoak 195,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 5,90/6,00
8-10 kilokoak: 4,60/5,30

tuluarekin eta esperientzia handiarekin ospitale, zahar etxe edo etxeetan lan egiteko eskaintzen da. ☎620 955648.

Gizonezkoa eskaintzen da **kamioi gidari** internazional eta nazional bezala aritzeko. Esperientziaduna. ☎634 679659.

## LANA
### eskaintzak

**BERA.** Ostatu batean **sukalde laguntzailea** behar da. ☎948 630259.

## ANIMALIAK
### salerosketak

**Border Collie zakurkumeak salgai.** Aita eta ama hagitz onak, lanean erakutsi daitezke. ☎678 896909.



**Basurde ehizarako** txakur emea salgai, hamar hilabetekoa. ☎686 635304.



**Tekel** arrazako zakur emea salgai, bederatzi hilabetekoa. ☎686 635304.



## ANIMALIAK
### oparitzeko

Leitzan hilabeteko **2 txakurkume** oparitzen dira. Ama ardi zakurra eta aita labrador arrazakoa. ☎948 510224.

## MOTORRAK
### salgai

**Nissan Almera Tino** 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎628 572273.

---

**ETXALARKO UDALA**

## HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena**: 5 urte, luzatzeko aukerarekin.
- **Hileko errenta**: 365,00 euro + BEZa. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza**: 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak**: Baldintza pleguan adierazten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea**: 2013/05/15ko 14:00 arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta udalaren web orrian (www.etxalar.org)

Etxalar, 2013ko apirilaren 19an
Alkatea, Miguel Mª Irigoien Sanzberro

---

**DONEZTEBEKO UDALA**

## Kiosko-Taberna bat paratzeko udal-lizentzia ematea

Doneztebeko Udalak 2013ko martxoaren 20an egindako udalbatzan erabaki zuen udal igerilekuen ondoko eremuan kiosko-taberna bat paratzea. Horretarako, udal-lizentzia lortu beharko da lizitazio baten bitartez. Kioskoa honako baldintzetan paratuko da:

- **Kioskoa paratzea**: Udal igerilekua martxan dagoen bitartean: urtero ekainaren 15etik irailaren 8ra.
- **Lizentziaren iraupena**: Urtebetekoa, baina beste 3 urtez luza daiteke.
- **Zenbatekoa**: 30,00 euro denboraldiko.
- **Lehiaketan ustiapen proiektua baloratuko da.**
- **Eskaintza aurkezteko epea**: Eskaintzak Doneztebeko Udaleko idazkaritzan aurkeztuko dira iragarki hau Udaleko Iragarki Oholean argitaratu eta 15 egun baliodun baino lehenago. Eskaintzak plegu administratiboko klausuletan arautu den moduan aurkeztuko dira.

Administrazio-baldintza partikularren plegua interesdunen esku dago udaletxeko idazkaritzan.

Doneztebén, 2013ko apirilaren 10ean
Alkatea, Miguel San Miguel Azpiroz

---

**Aisan** markako **autoa** salgai. Egoera onean. Prezioa 2000 euro. ☎690 050903.



**Renault Megane** 1.6 gasolina salgai. 1997 urtekoa. ITV eta zirkulazio tasa ordainduak ditu. Egoera onean dago. Prezioa: 700 euro. ☎648 289710.



## DENETARIK
### zerbitzuak

**BAZTAN, MALERREKA** eta **BORTZIRIAK**. Egur loteak egin, materialetarako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎600 789034.



## DENETARIK
### salerosketak

Balay markako **frigorifikoa** salgai, 2011ko apirilean erositakoa. Soilik frigorifikoa da, ez dauka kongeladororerik. Hagitz egoera onean dago. Prezioa: 300 euro. ☎679 332358.

Eskuz egindako **piketeak** salgai 2,5 euro unitate bakoitza. Egur mota alkazia da. Piketeak eramateko garaian ordaindu behar dira. ☎948 610943.

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

**Epson SX125** markako **inpresora** salgai. Inpresora, eskaner eta fotokopiadora funtzioak betetzen ditu. Erabili gabea. Prezioa 50 euro. ☎627 395245.

**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.






Rational markako **labea** salgai. 6 bandejakoa. Egoera oso onean. ☎617 461649.

**EZKURRA.** Alkaziazko piketeak salgai. ☎600 699266

## DENETARIK
### galdu/aurkituak

Lesakako igerilekuan **bi lepoko** galdu dira. Nahastuta beste norbaiten nezeserrean sartu dira. Aurkitu dituenak faborez igerilekuko harreran utzi ditzala. Eskerrik asko.






# urtebetetzeak

Argazki soila: **4€**; bikoitza: **8€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez



Narbarteko **Olaiak** apirilaren 15ean 3 urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familiaren eta berexeki aitatxo eta amatxoren partez.



**Suhar** 3 urte bete dituzu! Zorionak zure guraso, amatxi-aitatxi, amona-aitona, eta izeba osabaren partez. Goza ezazu zure anaia Unaxekin eta laguntxoekin. Muxu eta zuk ematen dituzun besarkada handi-handiak zuretzat eta Unaxentzat. Ongi pasa zure laguntxoekin!



Elizondoko **Janire Sarobe Sansinenak**, etxeko txikiak, bi urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila bat etxekoen partetik eta potol potoloena Garaziren partetik.



**Izaro Saldias Makazagak** urtea beteko du maiatzaren 14an. Zorionak Iturengo amatxi-atautxi eta izaba-osabaren partetik. Muxu haundi bat pottoka.



**Andre Allan Da Costa Silvak** 10 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak asko maite zaituen Lesakako familiaren partetik. Muxu txapeldun!



**Eneritz Perez** beratarrak 9 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guzien partetik, berexiki zure ahizpa Lexuriren partetik.



Iturengo **Ekaitz Sein Ariztegik**, gure pottokok, 2 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Aunitz urtez eta muxu pila-pila familia guztiaren partez.



**Aiert** eta **Elorri Arotzena Portu** lesakarrek 2 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Aunitz urtez familia osoaren partetik eta bina muxu haundi-haundi!



Lesakako **Aiert** eta **Elorri Arotzena Portuk** 2 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Zorionak eta muxu haundi-haundiak amatxo, atatxo eta bereziki, hainbertze maite zaituzten Orti anaiaren eta Lexuri arrebaren partetik!



Aresoko **Enea Zubilaga Urretak** urtea bete du apirilaren 23an. Zorionak eta muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partetik pottoki!



**Naia eta Asier** atta-alabek, 38 urte eta urte bat beteko dituzte maiatzaren 7an eta 11n. Aunitz urtez Lesakako familia guztiaren partetik.



Iruráko **Naia Aranguren Mendiolak** maiatzaren 11an urtea beteko du. Zorionak Lesakako familiaren partetik eta bereziki Unai eta Olaiaren partetik! Muxu pottoloak!!



Berako **Lorea Gomez Goietxe** pinpilinpauxak lau udaberri beteko ditu maiatzaren 4an. Aunitz urtez eta laurehun muxu familia guziaren partetik!



Berako **Oier Martin Fagoagak** 4 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Zorionak familia guztiaren partez eta bereziki Aroaren partetik. 4 Muxu!!



**Urko Telletxea Sein**, gixon haundiak 2 urte bete ditu apirilaren 30ean. Aunitz urtez Kemen eta Enaitzen partetik, muxuak



Xuper **Ixeba Amaiak** urteak beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak Unai, Naia eta Olaia mosketarien partetik. Milaka muxu haundi eta goxo!!!!!







FERRETERIA APEZTEGUIA BURDINDEGIA
Titan Margoak
Laneroko babesak
Material elektrikoa
Iturgintza
Presta zaitez udarako...
...Lorategi eta baratzerako produktuekin
Lorategiko altzariak
Lorategiko tresneria
Loreontziak
Haziak
...Eta hainbat produktu gehiago!!
Leitzako errepidea - Doneztebe
948 450 994 - info@apezteguiaberria.com
www.apezteguiaberria.com


a+e
arquitectura + eficiencia energética
www.apezteguiaelizalde.com
Laura Apezteguía González
Arkitektoa + Ingurumen Diseinuan Masterra
laura@apezteguiaelizalde.com
T. 626 261 990
a+e arkitektura + eraginkortasun energetikoa
Doneztebe: San Miguel Gaina, 3
Iruñea: Madres de la Plaza de Mayo kalea, 44




## ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

# deskontuak

CITROËN
SANSIÑENA TAILERRA
ELIZONDO | %5 olio aldaketetan

Ostargi optika
BERA
%5eko deskontua produktu guztietan

libreria nafarpress liburudenda
ELIZONDO
%10 liburu eta ikas materialetan, testu liburuak eta bideoak izan ezik

ELBETEko POSADA
ELBETE
%10, kartan, 30€tik gorako gastuan

bixkiak
KIROL ETA MODAKO arropa denda
LESAKA | %10eko deskontua

bortzirudi
BERA
Kopietan, enkuadernazioetan eta inprentako zenbait lanetan, 5€tik gorako gastuan %5eko deskontua

# zozketak

**588 ALEKO IRABAZLEAK**

1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto
Pilar Jauregi | **LESAKA**

2- MARTIKO LOTEA
Lina Matxikote | **BERA**

3- 2 SARRERA | Sorginen lezea
Lide Zinkunegi | **DONEZTEBE**

4- 2 LIBURU | Ttarttalo argitaletxea
Mª Carmen Lanz | **BERA**

5- 2 SARRERA | Lesakako Udal kiroldegia
Marta Petrirena | **ORONOZ-MUGAIRI**

6- 2 SARRERA | Aquarium
Alicia Arregi | **ELIZONDO**

**1** BOLTSO BAT
Oninart denda
www.oninart.com



oninart

**2** ARKUPEAK LOTEA
www.arkupegozotegia.com

ARKUPE Gozotegia - Txokolategia



**3** 2 SARRERA
Sorginen lezea
www.turismozugarramurdi.com




**4** 2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

elkar



**5** 2 SARRERA
Lesakako Udal kiroldegia
www.urdiri.com



**6** 2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com

AQVARIVM

